



ARGIA

ERREKALEORREK BIZI NAHI DU

Erresistentziarako prest Gasteizko auzo autogestionatuan

LARRUN:
USTELKERIA
EUSKAL HERRIAN

ITSASOA: MARTXA
HONETAN, 2050EAN
PLASTIKO GEHIAGO
ARRAINAK BAINO

AZPEITIKO UDALAK
TURISTAK ERAKARRI
NAHI DITU
HERRI NORTASUNA
GALDU GABE



02555
9 778402 130093

Alberdi EUSKAL ARTISAUTZA

MAKILA



Opari berezietarako • pertsonalizatuak • prezio aukera desberdinak

**Makila
tradizionala**
Gaztainondo/Letoi



**Makila
tradizionala**
Mizpirondo/Letoi



**Makila
tradizionala**
Mizpirondo/Alpaka



**Makila
tradizionala**
Mizpirondo/Zilar fina



**Ohorezko
Makila**
Mizpirondo/Alpaka



**Ohorezko
Makila**
Mizpirondo/Zilar fina



ESKAERAK: www.argia.eus/denda/makilak | denda@argia.eus

Zirkuitu Ibilbidea, 2 - Industrialdea, 15 | 20160 Lasarte-Oria (Gipuzkoa) | 943 371 545

PANORAMA

- 4 Asteko argazkia
- 6-9 Albisteak
- 7 Hor dena gailu
- 10 Net Hurbil: Agroekologia Indian, duintasunaren bidea

IRITZIAK

- 17 Baleren Bakaikoa Azurmendi
- 18 Enrike Diez de Ultzurrun
- 19 Pako Sudupe Miren Artetxe



Itsas ekosistemak arriskuan daude plastikozko hondakin gero eta ugariagoengatik. (ARGAZKIA: GREENPEACE)

- 37 DENBORAREN MAKINA
- 38 BIZI BARATZEA
- 40 ARGIA KOMUNITATEA
- 48 KULTUR KRITIKA
- 50 ZUZENENKO EMANALDIA
- 51 DENBORA-PASAK
- 52 ARGI-KONTRA: ROSAN BOSCH
- 54 BERANDUEGI

AZALEKO ARGAZKIA: KAULDI IRIONDO

SAKONEAN

- 12 | Elurre Iriarte: "Ongi bizitzea mundua hobetzen saiatzea da, ez tripaz goiti egotea" / Miel A. Elustondo
- 20 | Itsasoan animaliak adina plastiko / Garazi Zabaleta
- 25 | Logopedia: komunikazioaren fisioterapeutak / Ainhoa Mariezkurrena Etxabe
- 26 | Cheikhouna auzoan nahi du Txantreak: Legea versus humanitatea / Xabier Letona
- 28 | Nafarroan 3.000 aldiz aplikatu dute Mozal Legea Foruzaingoak eta udaltzainek / Axier Lopez
- 30 | Bizi ereduen talka Errekaleorren / Lukas Barandiaran San Roman, Kauldi Iriondo
- 34 | Azpeitibizi: Nola bultza turismoa herri nortasuna eta euskara kaltetu gabe / Onintza Irureta Azkune
- 36 | Nola eragiten dio hezkuntza publikoaren egoerak zure seme-alabari? / Mikel Garcia Idiakez
- 42 | Gipuzkoako Herriartekoko finalistak: Ziri-demarako prest / Estitxu Eizagirre Kerejeta
- 46 | Amerika Kapitaina nazi bihurtu da / Gorka Bereziartua Mitxelena

ARGIA KOMUNIKAZIO PROIEKTUA HARPIDEDUNEN ETA LAGUNTZAILEEN BULTZADAREKIN ATERATZEN DUGU AURRERA. MILA ESKER DENOI.



EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO

HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA
ETA KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza
diruz lagundua



Gipuzkoako Foru Aldundia



DOAN ETA LIBRE

ARGIAKO EDUKIAK KOPIATU, MOLDATU, ZABALDU ETA ARGITARA DITZAKEZU, GURE EGILETZA AITORTU ETA BALDINTZA BERETAN EGINEZ GERO.

Jabetza: Komunikazio Biziagoa, S.A.L. Ametzagaiña Taldeko partaidea.

Lehendakaria: Bego Zuza. **Zuzendaria:** Estitxu Eizagirre.

Erredakzioa: Ane Eslava, Axier Lopez, Estitxu Eizagirre, Gorka Bereziartua, Itsaso Zubiria, Jon Torner, Lander Arbelaitz, Lukas Barandiaran, Mikel Asurmendi, Mikel Garcia, Onintza Irureta, Pello Zubiria, Unai Brea, Urko Apaolaza, Xabier Letona.

Diseinua: Sergio Labrador. **Argazkilaria:** Dani Blanco. **Produktzioa:** Antza S.A.L.

Harpidetza: Iraitz Agirre. **Administrazioa:** Jone Arzallus, Mari Karmen Loiarde, Marijo Aiertza.

Salmenta: Idoia Arregi, Ixabel Bereziartua, Karlos Olasolo, Maite Arrieta, Olatz Korta.

Idazkaritza: Aloña Sorraluze, Bego Zuza. **Web garapena:** Asier Iturralde.

HELBIDEAK:

Gipuzkoa: Industrialdea, 15. 20160 Lasarte-Oria. Tel: 943 371545.

Lapurdi, Nafarroa Beherea eta Zuberoa: Xalbardin baita. 64122 Urruña. Tel: 559 473163.

Bizkaia: Eleizalde 1, 2-D. 48600 Sopela. Tel: 94 6765580.

Nafarroa: Gazteluko Plaza 44, 3. eskuina. 31001 Iruñea. Tel: 948 222285.

POSTA ELEKTRONIKOAK:

Komertziala: komertzial@argia.eus. Harpidetzak: harpide@argia.eus. Erredakzioa: kazeta@argia.eus. Interneten: www.argia.eus.

Lege gordailua: SS 837-2012. ISSN: 0213-909X. Batzorde parekidea: 72562 E.

Inprimategia: Antza S.A.L. Informatika: iametza interaktiboa, S.L.

ARGIA KIDETZA:

Kidetza harpidetzari lotuta egon beharrean, ARGIA komunikazio proiektua indartzera dago lotuta. Partikular eta kolektiboek, ahal duten eta egokitzat duten ekarpen ekonomikoak eginuz, ARGIA argitaratzen dituen kazetaritza lanak (aldizkaria, Larrun, Aktualitatearen Gakoak) jasotzeko aukera izango dute. Batez beste, ARGIA Jendeak 12,50 € jartzen ditu hilean proiektua indartzeko.

Erakunde publikoen kasuan, ohiko sistemari eusten diogu. Harpidetza tarifak: ARGIA astero (150 € urtean), ARGIA hamabostean behin (80 € urtean) eta ARGIA hilean behin (42 € urtean).





PANORAMA

Karrantza, behi lurraldea

150 inguru behi hazle daude Bizkaian, horietatik 110 udal bakarrean: Karrantza. Bizkaiko udalerririk zabalenean 2.700 lagun bizi dira. Horiekin batera 13.000 behi, 8.000 esnetarako. Denbora luzez etorkizun beltzeko negozioa izan da esne ekoizpena, nahiz eta panorama azken hilabeteetan argitu egin den. Karrantzako behi hazleak dira, egun, etekin handiena lortzen dutenetakoak, nagusiki Bizkaia Esnea eta Euskal Herria Esnea markei esker. Mehatxua Soriatik dator. Han egin nahi duten 20.000 buruko etxalde erraldoiak merkatua leherraraziko luke eta, seguruenik, oraindik guztiz itzali ez diren borrokak berpiztu.

Argazkia: Josu Trueba Leiva · Testua: Unai Brea

Euskarazko Interneten Egunak Azpeitian egin du 2. edizioa, PuntuEUS Fundazioak eta Kulturaz Kultur Kooperatibak antolatuta.



“Nabigatzailea erdaraz badaukagu, erdarazko nabigatzaileak gara. Ez baldin baditugu euskarazko aukerak erabiltzen, arriskua dago datozen bertsioak euskaraz ez egoteko”

Eneko Astigarraga, Codesyntax (Berria)



“Mugikorren %3 soilik dago euskaraz. Gureak euskaratzen ari gara”

@puntueus



“Tresna berri bat euskara sarean indartzeko: <http://Tori.eus/fitxategi/landak/2017/05/19/01> elkarbanatzeko zerbitzu euskaldun eta doakoa”

@JWalino



“Ikastoletan, gailuak euskaratzeko unitate didaktiko bat prestatu dute eta irekian eskuragarri ere jarriko omen dute”

@teketen



URIOLA.EUS

Maiatzaren 15ean elkarreteratzea egin zuten Eusko Jaurlaritzaren Bilboko egoitzaren aurrean, salaketa jarriko zutela iragartzeko.

Lanbideren irizpideak auzitegitan

Estitxu Eizagirre Kerejeta

@eeizagirre

Diru-Sarrerak Bermatzeko Errenta onartzeko Lanbidek ezarritako 75 irizpideetatik 28ren aurkako salaketa jarri dute martxoan gose greba egin zuten hamabi kolektiboek. Auzitegira eramandako irizpide horiek EAEko ehunka herritar utzi dituzte DSBE jaso gabe.

Iñaki Carro abokatuak jarri zuen maiatzaren 16 goizean auzitegian salaketa, Lanbidek apirilaren 7an publiko egindako irizpideen aurka. Salaketa horretan diotenez, funtzionarioek legea aplikatzeko irizpide edo “eskuliburu” horien sei aldaera ezagutu dituzte. Arreta deitzen du bosgarren irizpide-sorta apirilaren 7koa dela eta zazpigarrena, berriz, maiatzekoa. Hau da, hilabeteren

buruan aldatu dituztela webgunean publiko egindako irizpideak.

Salaketa txostenak dioenez, aldaketa horiek lotura estua dute Eusko Legebiltzarrean irizpideez egindako galdera parlamentarioarekin (maiatzaren 11 edo 12an ezabatu zen Legebiltzarrean zailtzearen jarritako irizpideetako bat), eta auzitegian aurkeztu duten salaketarekin: Iosu Balmaseda Argilan-ESK-ko kidearen hitzetan, “irizpideak astez aste doaz aldatzen, mutatu”.

Salaketa-txostenean galdetzen dute ea nor erabakitzen duen irizpideetan egiten den aldaketa bakoitza, eta zer galbahe juridiko pasatzen duten irizpide horiek. Berme juridikoak eskatu dituzte irizpideak zehazterakoan, “administrazioaren aldetik egon daitekeen diskrezionaltasunari eta arbitrariedadeari ahalik eta zirikaturik txikiena uzteko”.

“Milaka torturatu egon dira, hori baimentzen zuen sistema oso bat eraiki delako”

ENEKO COMPAINS, TORTURAK SALATU DITU

Auzitegi Konstituzionalak haren auzia berriz ikertzeko agindu ostean deklaratu du Eneko Compainsek. 2010ean atxilotu zuten, eta torturak salatu zituen. “Euskal Herrian milaka tortura kasu egon dira, ez kontrolik gabeko lau guardia zibilek hala izan nahi dutelako, baizik eta hori baimentzen zuen sistema oso bat eraiki delako. Torturatuok biktimak gara; besteei zor zaiena zor zaigu: aitortza, erreparazioa eta ez errepikatzeko bermea”. Auzitegiengan “konfiantza eskasa” duela adierazi du, ez ordea herritarrengan. **2017-05-19**







“Txirrindulariak ez harrapatzeko gakoa kontzientziazioa da, ez isunak”

Ane Eslava Serrano

@eslavaane

Ugariak dira txirrindularien istripuak, autoek harrapatuta. Valentziako kasuak eta Ane Santesteban, Chris Froome edo Nicky Hayden profesionalen istripuek mahai gainean jarri dute arazoa.

2017a urte tragikoa izaten ari da txirrindularientzat. Istripu larriena maiatzaren 5ean gertatu zen: edanda zegoen emakume batek sei txirrindulari harrapatu zituen eta horietako hiru hil egin ziren. Beste asko izan dira, baita txirrindulari profesionalenak ere: Ane Santesteban errenteriarrek istripu larria izan zuen martxoaren 17an eta apirilaren 22an Chris Froomek –Frantziako Tour-aren irabazlea hiru aldiz– istripua izan zuen. Maiatzaren 17an, auto batek Nicky Hayden moto gidaria harrapatu zuen bizikletan zihoala, eta larri dago.

Biziz Bizi txirrindularien elkarte-ko kideengana jo dugu, azalpen bila. “Arrazoi nagusia da ziklismoa modan dagoela eta gero eta bizikleta gehiago daudela, eta auto gidarientzat molestia bat dira”, azaldu du Javi Umaranek. Kontzientziarik ez dagoenez, auto gi-

dariak ez dituzte neurriak betetzen, Umaranen ustez: “Metro eta erdiko distantzia gorde behar dute eta bidegurutzeetan txirrindulariek duten lehentasuna errespetatu, baina ez dute egiten. Eta horri abiadura eta alkoholaren eraginak gehitzen zaizkio”. Biziz Biziko kidearen hitzetan, neurri eraginkorra izango litzateke txirrindulari asko dauden errepideetan marra gorri bat margotzea, metro eta erdiko distantzia zehazteko.

Umaranen aburuz, gakoa kontzientziazioan dago, zigorretan baino gehiago. “Egun dauden neurriak errespetatuko balituzkete, nahikoa izango litzateke, neurri gehiago jartzeak ez du ezertarako balio, jendeak ez baditu betetzen”, azaldu du. Horren ordez, jendeari errepidearen arriskuen inguruko informazioa helaraztea funtsezkoa da.

Ezinbestekoa da autoritateek ardura hartzea, haren ustez, baina ezbeharrak gertatu diren arte “beste aldera begiratu” dutela dio. “Arazoa betidanik egon da, baina muturreko egoera batera heldu arte ez dute ezer egin”, salatu du. Gertatutakoaren ondorioz pausoak ematea espero duela esan du.

EKONOMIAREN TALAIAN

Sindikalgintza abertzalearen erronka



Juan Mari Arregi

Sindikalgintza abertzalea, hein handi batean ELAK eta LABek osatua, bere iragan eta batez ere etorkizunaren inguruko hausnarketa sakonaren aurrean dago. Bi sindikatuak, baita CCOO ere, biltzarrak egingo dituzte hilabete honetan eta ekainean. Horietatik aterako diren ondorioak garrantzitsuak dira oso, hurrengo lau urteetan jarduteko oinarriak bideratuko baitituzte, etengabe eguneratzen ari den eta langileen kontrako politikak egiteko batasun erabatekoa erakusten duen Kapitalaren aurrean.

Sindikatu abertzaleen ponentzietan badago ideia bat errepikatzen dena: biek esaten dute ekintza sindikal bateratua indartu behar dela, kapitalismoaren erasoaldia gainditzeko. Burujabetza prozesua garatu eta bi borrokak –klasearena eta nazioarena– uztartzearen aldeko dira; euren autonomia politiko eta finantzarioa bultzatu nahi dute; ekintza sindikala beste langile eta herri sektoreetara hurbildu... Azken batean, askoz gehiago dira batzen dituzten estrategiak banatzen dituztenak baino. Seguruenik negoziazio kolektiboa izango da bien arteko diferentzia nabariena. Baina adostasunak aurkitu daitezke eta, hor ere, pixkanaka aurrera egin, ekintza sindikal bateraturantz.

Ondo legoke bi sindikatuak euren biltzarrak aprobetxatzea biluzteko, soinetik gehiegizko zamak eta protagonismoak kenduta. Aurrean ditugun erronka berriei zintzotasunez eusteko ere balio dezakete bilkura horiek: gazteen edo 45 urtetik gorakoen arteko langabezia, pentsiodunen egoera, prekarietatea, lan-istripuak, genero desoreka, robotizazioa, migrazioak, burujabetza ekonomikoa... Kapitalismoa basatia da, indartsua, eta baturik dago, “etengabe berritzen” ari da eta halaxe mugitzen ditu gobernuetako hariak.



GEHITU

LGTBifobiak hiltzen gaitu

EUSKAL HERRIA. Hainbat ekitaldi antolatu dituzte, Homofobia, Bifobia eta Transfobiaren Aurkako Nazioarteko Egunaren harira (irudian, Donostiako Bulebarrean hainbat elkartek egindako elkarretaratzea). Gaur egun oraindik, 72 herrialdetan homosexualitatea debekatuta dagoela eta hamabitan heriotza zigorra aplikatzen dela gogoratu nahi izan dute, besteak beste. Estigmatizazioak eta jazarpenak gora egin dute eta onarpenak eta babesak, behera. Herrialdeen %25ak ez du LGTBI pertsonak babesteko neurririk.

Jaiak genero ikuspegitik aztertzen dituen liburua

Argia

@argia

Festak, genero-harremanak eta feminismoa liburua Miren Guillók koordinatu du eta hainbaten artean idatzia da. Zenbait jai-erritu eta egitasmo zehatzetan genero harremanak nola garatzen diren aztertu dute.

Jaiak, esparru pribilegiatua

Jaia plazerarekin eta subertsioarekin lotzen da. Jai giroa dantza, alaitasuna, barrea da, baina baita gizartearen isla ere. Liburuaren egileentzat jai eremua azterketarako esparru pribilegiatua da, batetik genero ikuspegitik gizartearen orokorrean ematen diren gatazkak hor ere badaudelako, eta bestetik egoera horiei aurre egiteko eta bestelako harremanak eraikitzeko ahaleginak ikus daitezkeelako.

Ahots asko

Ahots asko, eta beraz, modu askotako gogoetak ageri dira liburuan. Besteak beste, Maggie Bullen, Xabier Kerexeta, Mari Luz Esteban, Onintza Enbeita, Beatriz Moral, Miren Gaztañaga, Laura Muelas, Iraitz Lizarraga, Miren Aranguren, Mainer Fernandez Leire Lopez, Idoia Arraiza, Oihana Etxebarrieta, Idoia Trenor, Maria Ajuria, Araitx Rodriguez, Kattalin Miner, Ana Txurruka, Aitziber Zapiain, Garbiñe Elizegi...

PALESTINA



76

preso palestinar ospitalera eraman dituzte, gose grebak eragin dizkien osasun kalteak direla-eta.

30

egunetik gora daramatzate gose greban 1.600 bat preso palestinarrek, euren baldintzak hobetzeko. Israelgo agintariek, ordea, grebara batu diren presoak are gehiago zigortu ditu.



BIRZIKLAPEN TASA

Unai Rementeria Bizkaiko ahaldu nagusiaren hitzetan, 2016an birziklatze tasa 43,78ko izan omen da eta 2014an 40,82koa. Zifren arteko hurbiltze hau aurrerapen bat da, baina oraindik bide luzea dago egiteko Euskal Herriko hondakinen kontabilitate guztiak irizpide bateratuan egiteko.



ZENTSURA

Kurdistanen aurkako politikan pauso bat gehiago eman du Turkiako Gobernuak: Rojeva Medya-ren webgunerako sarbidea debekatu du, herrialdean kurduek dagoen egunkari bakarra.



NUKLEARREI EZ

Bozen %58,2arekin, energia nuklearraren erabilera modu mailakatuan ezabatzea aurreikusten duen Energia Legea onartu dute, erreferendumean, Suitzako herritarrek. Funtzionamenduan dauden zentralak itxia du helburu legeak.

Indian agroekologia Zero Aurrekontuko Nekazaritza esaten da



Pello Zubiria Kamino

@pellozubiria

Agroekologia ez da hirietako ekologista *snob* jendearen edo beren soro-baratzeak kimikoz pozoitzeari uko egiten dioten nekazari erradikalen kontua, Mendebaldean askok pentsa lezakeenaren kontra. Kuban ez da, eta atzerritarren blokeoak jendea gosez ez hiltzea lortu zuen. Indian, berriz, nekazaritza industrialak txirotasunera eta suizidiora kondenatutako laborariei duintasunez bizirautea ahalbideratzen die.



Gasteizen elikadura burujabetzaz antolatutako *Elikadura21* biltzarrean aurkeztutako hainbat esperientziaren artean, zenbait deigarri egingo zitzaion Indiatik etorritako Ashlesha Khadsek hamar minututan laburtu zuen *Zero Budget Natural Farming* eredu. Mexikoko Chiapaseko Colegio de la Frontera Sur institutuan jardun ondoren, gaur sorterrian ari da Amrita Bhoomi Centre nekazari ikasketen zentroan.

1993tik gaurdaino 250.000 pertsonak egin du bere buruaz beste Indiako nekazarien artean. Amrita Bhoomi erakundeak dioenez, atzerriko merkatuekiko menpekotasuna eta agro-industriako konpainiek baserritarren artean sortu duten zorpetzea daude horren sustraian. Baserri gehienak daude zorpean Indian, ez da txikien arazoa soilik, erdi mailako bezala handiak ere kateatuta daudelako. Landa eremutik ehunka milioi pertsonak alde egin du hirietara bizimodu bila, nahiz eta megapoli eta txabolategietan ez dieten askorako balio beren etxaldeetan ikasitako ezagutzak eta txirotasun larrira kondenatuta dauden.

Nekazarien bizimodua hobetzeko ahaleginen artean indar handiz zabaldu da ZANN Zero Aurrekontuko Nekazaritza Naturala (ZBNF ingelesezko hizkiz), batez ere Indiako hego aldean. ZANN estrategiak nekazariei itxaropena ematen die kredituekiko menpekotasuna hautsi eta produkzio kosteak errotik murrizteko, zorren gupil zoroa amaituz.

“Zero Aurrekontu” kontzeptuak hemen esan nahi du krediturik gabe eta kanpotik ongari edo botikatan inolako gasturik egin barik, eta “Nekazaritza Naturalak”, berriz, naturarekin bat eta kimikorik gabe lan egitea.

Nonbait zabaldu baldin bada ZANN tximistaren abiadan hegoaldeko Karnatakak estatuan izan da, Subhash Palekar liderraren ZANNren estrategiak eta La Via Campesinako kidea den KRRS Karnatakak Rajya Raitha Sangha mugimen-
duak elkar hartuta.

KRRS mugimenduak milioika nekazari mobilizatu ditu multinazionalak hartu duten hazien kontrolaren aurka, “Hazien esklabutzaren aurkako desobedientzia zibila” antolatuz. Bere lider ezagunena Mahantha Nanjundaswamy zen, globalizazioaren aurkako ekintzetan ere ezaguna; berak sortu zuen Amrita Bhoomi ikastetxea.

Gaur ZANN ereduaren buru nagusia Subhash Palekar (1949) da. Baserritar familia batean sortua, agronomia ikastera joan zen unibertsitatara. Ikasketetan harremanetan sartuta Indiako tribuekin, hauen arazoei markatu zuten sakon. 1972an gurasoen etxera bueltan haien segida hartu zuen Palekarrek, baina aitak ordura arte landu izan zuen nekazaritza naturala alde batera utzita, unibertsitatean ikasita bezala Iraultza Berdearen produktu kimikoetan oinarrituta eraberritu zuen etxaldea.

Kimikarekin hasieran bere lurrek gero eta uza hobeak eman zizkieten

arren, 1985etik aurrera ohartu zen ekoizpenak murrizten hasi zirela eten gabe. Tarte horretan, maila intelektualeko gizona izanik, aztertuak zituen Karl Marx, Mahatma Ghandi eta Indiako erreferentzia hinduista klasikoak. Bere lurren produkzio industrialaren gainbeherak bultzatuta, sei urteko ikerketa lanetan murgildu zen, bereziki aztertuz zuhaitz eta basoen dinamikak, jakina denez hauek gizakien inolako laguntzarik gabe bizi baitira beren buruak elikatuz eta ingurukoei ere etekinak eskainiz.

Munduko nekazari askoren erreferentzia nagusia den Masanobu Fukuoka japoniarrari asko zor dio Palekarren sistemak. Baina Fukuoka budistaren ideia Palekar hinduistak zorrotz egokitu du Indiako nekazari oso txiroen beharretara.

Bizirauteko oinarritzko kita

Boluntario sare zabal batean oinarritzen da Karnatakako ZBNF mugimendua, herriko modu informalean funtzionatzen du, eskualde bakoitzak bere estiloan, nekazarien arteko elkar laguntzan oinarrituta munduan ezaguna egin den “*Campesino a Campesino*” ereduaren.

Ekintza antolatu zentralizatuak ere badituzte tarteka. Indian osoan gurtzat hartua den Palekarrek berak ematen dizkie baserritarrei 5 eguneko ikastaro trinkoak, egunero 8 ordukoak, 300dik 5.000 arteko jende multzoak bilduta, gizon eta emakume, heldu eta gazte. Hiru euro eta erdi sinboliko ko-



'Lok Barthi' hedabide indiarren argazkian, Subhash Palekar nekazari ikasleekin batera prestatzen Jivamrita: 200 litro bete uri gehitu 10 kg behi gorotz berri, 5-10 litro behi pixa, 2 kg azukre –Indiako baserritarrek Jaggery izenez lekuan egiten dutena–, 2 kg baba edo lekale eta eskukada bat lur baserriko hesi edo murkoren batetik hartua. 48 orduz itzalean hartzitzen eduki ondoren, 200 litroekin ondo ongarrituko da 4.000 metroko soro bat, hektarea erdi ingurukoa. Agroekologiako beste teknikekin uztartuz, helburua da baserritarrak kanpotik ezer erosi gabe mantentzea bere familia.

bratzen zaie pagatu dezaketenei, aterpetze, otordu eta gainerakoak boluntarioen gain doazela. Hor Palekar luze eta zabal mintzatzen da, filosofia eta ekologiaz bezala lurrari uzta ateratzeko xehetasun txikienez.

Palekarri guztiek aitortzen dioten meritua izan da nekazaritza ekologikoaren printzipioak Indiako jende txiroentzako halako erreminta kaxa sinple batean bildu izana. Emergentziazko tresnak, zorpean eta sarritan miseriarraino abilduta dauden baserritarrek eskueran dauzkaten osagaiekin lanean hasita berehala eskuratu dezaten gutxienez bizi-rauteko adina elikagai.

Baserritarrek ikasten dute nola egin nork bere etxean eta kanpoko inori sos bat pagatu gabe egin oinarritzko *kita* osatzen duten lau lagungarriak, soilik erabiliz antzinatik sagaratuak diren

behien pixa eta simaurra, lurra, zenbait lekaleren irina eta zenbait landare ongarrri ahalmena dutenak. Izen banarekin bataiatuta daude lau osagai funtsezkoak. *Jivamrita*, lurraren mikroorganismo eta zizareak ugaritzeko zukua. *Bijamrita*, haziak hartan bilduta hobeto ernaltzeko oreka. *Achadana*, lurra mundu aberatsean *mulching* deitzen diogunaren antzera estaltzea bertan ihartutako landarek eta simaurrez. Eta *Whapasa* ura nola erabili, ahalik eta pit-tinenarekin laboreek ahalik eta probetxur handiena atera diezaioten.

Ereduaren beste oinarrietako bat da landare moten uztartzea soro eta baratzeetan. Zero aurrekontuak ez baitu esan nahi bakoitzaren kostea zero izango dela, landare ezberdinek elkarren ondoan haziz batzuen eta besteen koste eta beharrak orekatzea da helburua,

lekuko uzten ezaugarri eta sinergiak optimizatzea.

Soroetako ertz eta murkoetako hesi eta zuhaitzak erabiltzen dira euri ura finkatzeko bezala inguruko uztak ongarriritzeko. Eta garrantzia berezia ematen zaio Indiako *Bos indicus* behi arrazari, nekazaritzaren osagai funtsezkoa izan delako betidanik, hindu jendearen sinesmenekin bat egiten duelako... eta libre bizi diren behien simaurra ukuiluetakoazienda europarrena baino hobea delako soroa ongarriritzeko.

Zenbait adituren ustean Indiako ZANN izan daiteke agroekologia alorreko munduko mugimendu zabalena. Milioika familiak praktikatzeko du Indian. Haien ordezkariak ezagutu ahal izango ditu datorren uztalean Via Campesinak Bizkaian burutuko duen mundu biltzarrera hurbiltzen denak. ■



50 urtez elkarrekin



**ZINKUNEGI
OPTIKA**

Hernani, 23 · 20004 Donostia
T. 943 420 624
info@zinkunegioptika.com
www.zinkunegioptika.com



Elurre Iriarte

«Ongi bizitzea mundua hobetzen saiatzea da, ez tripaz goiti egotea»

Herri mugimendua du itsaso, alditan bare, alditan harro. Institutu garaia heldu zelarik murgildu zen ikasle organizazioan, eta orain, irakasle lan egina, eritua, eta lan arautua egiteko gai ez dela, herri mugimenduan segitzen du, mundu hobe egiteko ahaleginean, Baztanetik Euskal Herrira.



Miel A. Elustondo

ARGAZKIAK: ZALDI ERO

Zure berri baino lehen, zure aitaren berri dugu, Pello Salabururen *Errateko nituenak*. *Cuzcoko kronika* liburuan leiturik.

Pantxito tratantea. Pello Salaburuk kontatzen du aita hil zen egunean han zela gure aita ere. Erosia ziola gure aitak aratxea Salabururen aitari, eta dirua kobratu eta erori zela zapla lurrera. Pello Salabururen liburuan dator kontatua. Izan ere, gure aita harakina zen, eta baserri batetik bestera ibiltzen zen zerriak eta ardiak erosten.

Ez aita ez ama dituzu Arizkunen sortuak. Bada emigrazioz zure arbasoetan.

Amatxi Erratzukoa zen, aitaxi Amaiurkoa. Amaiurrera esposatu zen amatxi eta han sortu ziren lehenbiziko hiru haurrideak, gure aita tartean, baina Zugarramurdira joan ziren ondoren. Aita ttiki-ttikitik zen Zugarramurdira. Hamabortz urte zituela etorri zen bizitzera Arizkunerat, izeba baitzuen hemen, ondorengorik gabe, eta osaba-izeba haiei laguntzera etorri zen. Aitaren familian zortzi haurride edo baziren eta hiru izeba eta osaba bat Parisera joan ziren la-

nera, bertze bat Ameriketara, bertze bi fraide joan ziren.

Amak ere badu emigrazio historia.

Ama Itzalletik etorri zen hamabortz urterekin. Itzalle, Zaraitzun, han akitzen da bidea. Hamabortz urterekin etorri zen, familia batean lanera. Itzalletik Arizkunera mundu bat zen orduan. Urtean behin joaten zen Itzallerat gurasoak ikustera. Ikaragarria. Ama hamabortz urtetan etorri zen beretako arrotz zen hizkuntza batean bizi zen herrira, eta hala ere, etxean euskaraz egin izan dugu beti. Mahaian aritzen ginelarik, aitarekin beti ginen euskaraz –hitz bakar bat ere ez erdaraz, sekula santan ez–, eta erdaraz ginen amarekin. Ez dakit nola segituko zituen gure solasak, gaitzak! Pentsatzen dut sufrituko zuela ere, baina guri ttikitan haur solas horiek, fundamentuarekin solas egiten hasi artio egiten direnak, euskaraz egiten zizkigun: zato, tori, pa, jan, lo, xo... Gauza guziak euskaraz egiten zituen, eta orain ere, bere bilobekin, gehixeago egiten du euskaraz, segur aski.

Elurre Iriarte Bañez

1972, Arizkun

Sorterriko Kantanea etxean bizi da. Irakasle izana, gaixotasunak bazterrarazi zuen lan araututik 2009an, baina herri mugimenduan engaiatua bizi da. *Kirika FM, bizi garen munduei begira* (Metaziri, 2014) liburua du argitaratua. Oraindik orain, iaz Eako poesia egunetan egindako hitzaldia argitaratu dute: *Landa eremua (eta Baztan) literaturak kontatua* (Metaziri, 2017). (H)ilbeltza, nobela beltzaren astean ezagutu dugu, baina hor da beti, berdintasunaren alde Baztango mutil dantzetan nahiz pilotakada urbanistikoaren kontra Aroztegian. Arizkunen kultur taldea eratzeke lanean da orain.



1972an sortua zinenean, bizi-bizirik zegoen emigrazioa hemen.

Osaba, errateko, bizian behin etorri zen Amerikatik. Anaiak ez zuen ezagutzen. Hemezortzi urtetan joan zen hemendik, soldadutzatik eskapo eta Amerikak egitera, eta ez zen etorri 40 urte pasatu artio, bisitan. Gero, itzuli zen Argentinara, eta ez zen honat berriz etorri. Izebak Parisen ari ziren neskame... Zugarramurditik irten ziren denak. Garai batean, hemendik Zugarramurdira joatea aski abentura handia zen, eta erran beharrik ez dago zer zen Parisera joatea.

Zibilizazio hori bukatu da?

Bai. Gaur egun, berriz, gu bortz anai-arreba gara eta bortzak Arizkun bizi gara. Arras kanbiatu da bizia denbora gutxian. Orain, berriz, badugu Baztanen bertzelako emigrazioa: Latinoamerikako aunitz, marokorak, afrikarrak zerbait... Bailaran nahiko lakatu direla uste dut. Lana harrapatzen dute, haurrak D ereduan matrikulatzen dituzte... Udalak familia horiekin lan egin zuen hori horrela izateko.

Arizkun bizi zarete zuek, ikasketak erbestean egin zara zu, erbestean organizatzen hasia.

Oronozen ari nintzen, institutuan, lehenbiziko edo bigarren urtean. Hurbildu zitzaidan Berako lagun bat eta ikasle talde bat osatzea pentsatu zutela erran zidan. "Bale!", erran niolarik, oroitzen naiz erran zuela: "Ze fite erran duzun baietz!". Ez naiz oroitzen zer egiten genuen, ikasleen eskubideak zein ziren deskubritzen ari ginen, nazioa eta independentzia nahia bizitzen...

Ikasketak egin eta irakasle izan zinen.

Institutuan ari nintzela alfabetatu nintzen, eta magisteritza Iruñean egin nahi izan nuen, euskaraz. Gutxi ginen euskarazko adarrean, zortzi-edo izanen ginen, eta azaroak 20 zuen batean, justu, etorri zitzaigun arduradun bat, ikasleen ordezkaria, zer ari ginen galdezka. "Euskal adarrekoak gaituzu" erran geniolarik, berak ez ginela existitzen erran zigun. Orduan jakin genuen gure matrikula ez zela guztiz ofiziala, zinez legearen arabera. Manifaz manifa eman genuen urtea gure ikasketak onartu artean. Kurtsoa onartu ziguten, baina gure adar hark ez zuen aitzina egin: "Euskaraz egin duzue lehenbiziko maila, baina

Estrategia

"Maistra erdaldun bat paratu, haurride pila bat gainera, erdaldunak denak, nahikoa da bakotxa koadrila batean sartu eta herria erdalduntzeko. Medikua erdalduna zen, dendaria -gure ama-, erdalduna, edo ez-euskalduna, bederen. Arizkun, bertzalde, nahiko eskuindarra izan da, UPNk irabazi izan du herrian. Hor bada ikergaia, norbaitek egin nahi badu".

'Temazu'

"Medikuaren txostenean jartzen ditu nire izenak, neurriak, hau eta hura, eta gero: 'temazu', azken ordu artio ez bainuen operatu nahi izan. Egia da pisua ere aunitz galduta nuela eta ez zutela operatzen ahal, masa muskularrik ez nuelako. Jendea mehetu nahian dabilenean, ezin loditu ni. Etsigarria izan zen. Orain ohartzen naiz zer izan zen prozesu hura".

Euskara gaztelanian

"Euskaraz ez daki amak. Itzallen sortu zen. Amatzik bazekien, amak ez zuen ikasi. Hamabortz urtetan Arizkunerat etorri eta ikasi zuen euskaraz zerbait ere. Moldatzen da, nahiz kostatzen zaion. Euskaraz ez daki, baina euskarakadak ditu. Aitari erraten zion: '¿A dónde vas a pegar hoy?'. 'Norat jo behar duzu gaur'. Gaztelaniaz ez da horrelakorik erraten: '¿A dónde vas a pegar hoy?'".

orain erdarazko adarrera iragan, edo bazoazte hemendik". Eta Donostiara joan nintzen bertze bi urteak egitera, euskaraz. Ondoren, egokitze maila bat egin eta Pedagogia egin nuen.

Nafarroako herri franko ibili zenituen irakasle zinela.

1995-96an irakasle hasi nintzen Sarta-gudan, hilabeteko ordezkapena eginez. Handik Zarautzera joan nintzen, eta hurrena berriz ere Sarta-gudan ari nintzen. Handik goiti urte osoko kontratuak izan nituen Lekarotzen, Garraldan, Zugarramurdi, Mendillorri, Donezteben, Almandoz... Irakaskuntzan jendea kurri ibiltzen da hasmentan. Urte horietan, abuztua akitzean joaten zinen Iruñera, Hezkuntza ordezkariatzara, eta merkaturatu ematen zuen hark. Hantxe zituzten plazak eta irakasleon zerrendak. Erraten zituzten gure izenak, eta hautatzen genituen herriak. Nik, adibidez, bi aldiz hartu nuen Zugarramurdi, eta hartu nuelarik, jende artean aditu zen halako "ufff!" hots bat. Iruñeko jendeari urrun zaio Zugarramurdi. Niretako, aldiz, zoragarri Zugarramurdi.

Gaixotasunak eten zuen zure irakasletza?

Ezgaitasuna eman zidaten artio izan nintzen irakasle. 1998an hasi nintzen medikuarekin, mendira joaten nintzelarik, edo maldetan, eztulka hasten nintzelakoz. Argaldun nintzen, eta joan nintzen medikuaren kontsultara. Asma nuela erran zidaten. Tratatu nuen eritasuna, eta eman zidaten esprai horietarik. Ez hartzea erabaki nuen, eta higienismoaren bidetik jotzea. Nahikoa kontrolatu nuen eritasuna, baina mendira joaten nintzelarik, hala ere, eztula beti. Halako batean, 2002an edo, eritasuna gehiago sumatzen hasi nintzen, eta mehetu nintzen pila.

Zein zen eritasuna?

Ez zela asma esan zidan bertze mediku batek Gipuzkoan. Zarautzen eta Geta-rian ari nintzen lanean, eta han joan nintzen mediku baten kontsultara, pribatutik. Hark, publikoko zerrendetara sartu ninduen, proba batzuk egin behar zizkidala erranik. "Hemen inor ez da aberats izateko behartua", uste dut erran zuela. Hark erran zidan nire eritasuna ez zela asma. Baztanera itzuli nintzenean, hemengo medikuarekin hasi eta erran zidan: "Zure etorkizun bakarra birika



transplantea da". Hura izan zen transplante hitza aditu nuen lehenbiziko aldia, eta izitu nintzen, izitu eta haserretu. Eri zaudelarik ahul zara, eta gauza bera bertze modu berean erran eta, onartuko nuke, baina horrela erranda, ez.

Operatu zintuzten.

2009an. Bitartean, probarik proba ibili nintzen, baina ez zuten jakin gauza gorrik, eta gaur da eguna zer zen ez dakitena. "Ez dakigu zerengatik den", paratzen dute paperean. Makrobiotikari

heldu nion, ene burua bortxatzen nuen, ez nintzen sofán gelditzen, harat-honat ibiltzen nintzen, baina eritasunak bidea egin zuen eta ailegatu zen momentu bat, goizean jaikitzen nintzen eta jaiki orduko jarri behar nintzen arnasa hartzeko. Kostatu zitzaidan operatzea erabakitzea. Astakeria iruditzen zitzaidan bi birikak transplantatzea. Orain ez dut dudarik, ez naiz batere damu. Arras ongi naiz, nahiz botika pila bat hartzen ditudan egunean, botika kate bat. Ez dut pentsatu nahi ere. Gure aitak erraten zuena botikak hartzean: "Bakotxa bere tokira!".

Lanerako ezgaitasuna eman zizuten 2006an.

Ez nuen gizarterako deus "produzitzen", ezgai sentitzen nintzen. Hala ere, gogor egin eta saiatu nintzen etxean lanak egiten, haurra zaintzen, baina ezinean. Goizean iratzartzen nintzenetik loak hartu artio ezgai sentitzen nintzen. Halako batean, ezgaitasuna jaso nuen, ofizialki. "Ez zara gai". Hura kolpea! Oroitzen naiz joan nintzela Hezkuntzara eta erran nuela: "Ni ez kendu zerrendatik, itzuliko naiz"... Ez naiz itzuli, jakina. Horrekin batera, oxigenoa agindu zidan medikuak. Ibilki nintzen etxean oxigeno bonbona bati lotuta. Kolpe ikaragarria izan zen hori ere. Ez nintzen etxetik ateratzen. Hiru urtez ibili nintzen oxigenoarekin, operatu artio.

Lan arautuaren mundutik kanpo ibiltzeak bestelako ikuspegia eman dizu, *Kirika FM*, *bizi garen munduei begira* liburuan ageri denez.

Bai, dudarik ez.

Ikuspegi kritikoa.

Eta baikorra, aldi berean. Kar, kar... Ahal baldin bada, bederen. Paniko pixka bat ere ematen du iritzia plazaratzeak: "Hauxe da nire iritzia, baina sei urteren buruan iritzia alda nezake. Aldiz, hau hemen geldituko da, idatzirik". Momentu jakin batean idatzia da, baina hortxe gelditzen da.

Mundu berri bat egin nahian ari zara, herririk.

Institutuan hasi nintzenetik ibili naiz herri mugimenduetan. Orduan, Ikasle Abertzaleak zen. Erakargarria zitzaidan mundu hori. Ez dakit bertze biderik ere bazen, egia erran. Nik bide hura segitu

dut. Operatu nindutenetik “jubilaturik” nago, eta hemen ez dago obrarik begira egoteko. Kar, kar... Baina operatu aitzin eta operatu eta gero ere, bizitza hobetzea da nire lana, izan niretako, nire barriendako, edo ondorengoendako. Bizitza bakarra dela erraten dugunez, goazen ahal bezain ongi bizitzera. Baina ongi bizitzea ez da tripaz goiti egotea, gezurra da hori, ongi bizitzea mundua hobetzen saiatzea da.

Herri mugimenduan zara beti, (H)ilbeltza astean, mutil dantza parekidearen aldeko Plazara Dantzara taldean, Aroztegia kasuan edo datorrenean.

Egoerarekin kontent ez egotea dago, nik uste, herri mugimenduan ibiltze horren gibelean. Herri mugimendua, zentzu zabalean erranda. Irakaskuntzan dabilen irakaslea engaiatua ari bada, herri mugimendutzat dut nik. (H)ilbeltzan, adibidez, badira irakasleak, alderdi politikoetako jendea, talde feministetako, Metaziri argitaletxekoak... Bada nahasketa, gauzak antolatzen batera denok. Herri mugimenduan ibili gare-nok gauzak antolatzen dakigu; bertzerik



dakigun ez dakit. Herri mugimendua-
ren berteze ezaugarri bat da ez dakizuna
ikasteko interesa.

**Baztanen bizi-bizirik da herri mugimen-
du hori. Jendeak esku hartzen du antola-
tzen diren ekintza eta ekitaldietan.**

Zerbait antolatu eta propaganda pixka
bat egiten duzularik, jendea erraz mu-
gitzen da Baztanen. Jakinarazi behar
duzu, lortu behar duzu jakinaraztea.
Hemen –alde onak eta txarrak–, autoa
behar dugu gauza guzietarako, eta ez da
batere kostatzen autoa hartu eta Ariz-
kundik Iruritarra joatea. Jendeak badu
interesa, bai.

**Zuen herri mugimenduak baditu hainbat
aurpegi, hainbat izen, hainbat pertsona.**

Herri mugimendua martxan paratzen
duzularik, beti pertsona berak solasta-
tzen badu, bere txabola egiten ari dela
ematen du, eta gauza ez da horrela,

Azken hitza:

Luigi Anselmiren poema

Elurre Iriartek *Kirika FM* liburuaren ata-
riko jarria duen poema: “Zure bizitza-
ko / egun goibetan / ez etsi, / zeren
eta noizbait / zeru beltzok ere, / jaingo
baten soingaineko / zarpaila bezala, /
urratuko baitira / azkenean, / eta su-
pituki / agerian utziko / haren biluzta-
sun / distiranta”.

behar dira lanak banatu. (H)ilbeltzan,
adibidez, elkarrizketak heldu direlarik,
hasten gara txandaka egiten, bata egi-
nen du irratiarekin, bertzeak telebista-
rekin... Jendearendako lan erraza da, eta
publikoak ere ikusten du ez dela pertso-
na bakar baten afera. ■

MARCOS
okindegia

**Benetako
aitzinako ogia**

© 943 450 966
Ubarburu pasealekua, 113
Astigarraga (Gipuzkoa)

Jositajosi

**EUSKAL ESKOLA
PUBLIKOAREN
26. JAIA**

EKAINAK 4

Gasteiz
2017

www.euskaleskolapublikoarenjaia.eus



LAGUNTZAILEA

ARGIA

Austeritatearen arriskuak

Apirilaren 2an bete ziren hamar urte azken krisialdia hasi zela, herrialde aurreratuenak “motelaldi ekonomikoan” murgiltzen hasi zirenean. Gerora, finantza erakunde piloak joan zen hankaz gora eta zenbatetsi da herrialde aberatsek beraien BPGren %50 inguru mobilizatu zituztela ekonomia berpizte aldera. Izan ere, dirutza horiek erabili dira bankuak erreskatatzeko; mailegu bereziak eman zaizkie bankuei dirua izan dezaten maileguak eskaintzeko; eta hori gutxi balitz aktibo kutsakorrak erosteko, eta horretarako banku berriak sortu dituzte. Hots, dirua politikarako erabili zen motelaldiaren lehenengo urteetan, ortodoxia ekonomikoak eskatu bezala, politika fiskal oro saihestu eta.

Guztiori aplikatu zen, baina sistema ekonomikoa hazkundean oinarrituta baldin badago, sistema kapitalista dagoen bezala, eta hazkunde hori oso apala baldin bada, politika ekonomiko horrek porrot egin duela esan daiteke. Eta hori gertatu zen 2008tik 2010era-ko tartean. Izan ere, uste zen finantza egonkortasunera heltzen bazen, globalizazio ekonomikoa bermatuko zela: merkatu libre eta inbertsiotarako askatasuna, hori baita neoliberalismoaren aitak, Milton Friedman Chicagoko irakasleak ziurtatzen diguna. Alta, herrialde garatuetak BPG %1,5 ingurukoa izan da, Txinakoa asko apaldu da, eta Errusiak eta Brasilek ez dute egoera hobia izan, hazkunde negatiboak izan baitituzte urte askotan.

Gardenki ikusi zenez, neoliberalismoak porrot ikusgarria jasan zuen eta ondorioz ahots bat baino gehiagok zioen kapitalismoak lurra jo zuela: Nicolas Sarkozy berak zioen “kapitalismoa birsortu behar zela” edo kapitalismoaren egin du, Lawrence Summersek aitortu zuen moduan. Ustekabean zenbait ekonomialari keynesiar



Baleren Bakaikoa Azurmendi

EHU-KO IRAKASLEA

Begi-bistakoa da kapitalismoak erakargarritasun oro galdu duela, hazkundeak bakarrik ez baitu ongizaterik ekartzen, ezta lanpostu duinik sortu ere. Beraz, egoera horrek ekarri du planteamendu berriak azaltzea non erantzukizun oro globalizazioari eta merkatu libreari egozten zaizkien, fenomeno horiek txirotasuna areagotu besterik ez baitute egin

bihurtu zen: *Financial Times* egunkari neoliberalerako zutabegile ospetsu batek, Martin Wolfek, “orain denok keynesiar-rrak gara” zioen. Neoliberalismoaren itxurazko porrota. Baina ez, oraindik

bizirik zegoen, bizitza asko baititu.

Begi-bistakoa da kapitalismoak erakargarritasun oro galdu duela, hazkundeak bakarrik ez baitu ongizatea ekartzen, ezta lanpostu duina sortu ere. Beraz, egoera horrek ekarri du planteamendu berriak azaltzea non erantzukizun oro globalizazioari eta merkatu libreari egozten zaizkien, fenomeno horiek txirotasuna areagotu besterik ez baitute egin. Hortik isolamendu politikak indartzea eta etorkinekiko neurriak eskatu beharra aldarrikatzea: Donald Trump AEBetan, edo Marine Le Pen, Geert Wilders eta beste hainbate Europar Batasunean.

Abagune sozio-ekonomiko honetan politika ekonomikoak bi bide har zitzakeen: gizarte gastuen bidez gizarte hobeago batera jotzea, II. Mundu Gerrate ostean gauzatu zen bezala edo eskuinagora biratzea, nazionalismoa indartuz. Eta azken bide honi heldu diote mendebaleko agintari nagusiek, sozialdemokratik barne.

Abiatu den politikak ondorio larriak ditu Marck Blyth ekonomialari eskoziarrak frogatu digun bezala, *Austeridad: Historia de una Idea Peligrosa*-n. Izan ere, austeritate politika aplikatu den aldiro, I. Mundu Gerran Alemaniari aplikatu zitzaionean bezala, ondorioz faxismo-nazismoa sustatu zen; gaur egun Europan, Grezian hasita, ondorio berera iristen ari gara, baita Polonia edo Hungarian ere, ahaztu gabe Alemaniaren sortzen ari den Alternatiba, edo zer esanik Espainiako egoera tamalgarria.

Kontuz, beraz, austeritate politika iraunkorrak ekar lezakeenarekin. Esaten diguten oparotasuna sortu ordez, txirotasuna, langabezia, marjinazioa eta alde ekonomikoak areagotzea besterik ez du ekarri orain arteko austeritateak. Eta era berean, faxismoari ateak irekitzen ari zaizkio. ■

ITZULTZAILEA ETA KAZETARIA

Legealdia erdira iritsi den
honetan, Nafarroako
Gobernua (eta udaletan
ere) den-denak adi-adi
daude ea zer ekar dezakeen
Nafarroara EAJk PPrekin
egindako akordioak

Bizkitartean, legealdia erdira iritsi den honetan, Nafarroako Gobernuan (eta udaletan ere) den-denak adi-adi daude ea zer ekar dezakeen Nafarroara

EAJk PPekin egindako akordioak. Sekulakoak eta bi entzun ditugu akordioaren aurka estatuko hedabide eta politikari gehienen artean. EAEko ordezkari politiko batzuk ere sutsu mintzatu dira horren aurka; mikroen aitzinean, behinik behin. Eta herritar sumindu batzuek ere gartsu jo dute batzokien aurka. Nafarroan, ordea, bertzelakoa da ikuspegia. UPN, jakina, akordioaren bekaitz da, sekulan horrelakorik aitortuko ez badu ere, inoiz ere ez baitu gisakorik erdietsi Madrilen Nafarroarako. Eta aldaketa ren aldeko indarren ordezkariak diote ez legokeela batere gaizki Nafarroak ere diru gehiago baliatu ahal izatea, aldaketa bera errotzeko, sos alde hori arnasbidea izanzen baita Gobernuarentzat, bai eta udalarentzat ere. Geroa Baik ozenki aditzera eman du hori; bertze hiru indarrek, aldiz, ahapeka, zergerta ere, ez baita itxurosoa hant gauza bat erratea, eta hemen, kontrakoa. Izan ere, kontatu dituzten gai guztiak hitzartu dituzte EAJk eta PPK beren akordioan, eta uste denez, kontatu ez dituztenak ere bai. Hau da, bertzelako gaiak ere izan dira hizpide eta bertzelako kontuak ere hitzartu omen dira; tartean, Nafarroarekin zerikusia duten gauzak, datozen asteotan jakinen dugun bezala. ■

18

Abertzaletasuna zertan dugu egun?



Pako Sodupe
IDAZLEA

Azken ehun urte eta gehiagoan euskotar eta euskaldun eta euskal herritar mordoxxa ahalegindu da Euskadiren edo Nafarroa Osoaren edo Euskal Herriaren independentziaren alde; askotxok bizia eman dute, bizia galdu eta besteri kendu ere bai. Historia hori guztia oso garrantzizkoa da –aurrekorik gabe ez dago ondorengorik–, baina, bi hitzetan, zertan gara egun?

Azken Aberri Egunak ez dira ikaragarriak izan. Eta bakearen artisauek egin dutena? Hori ikaragarria izan da, jarraibidea erakutsi digute mende-baldeko: nolako arriskuak bereganatu dituzten eta zein egoki lortu duten ezarritako xedea! Bai, baina presoak askatzearena zailagoa da, giltzak estatuek dituztelako, eta mendekurako erabili nahi dituztelako, bereziki Espainiakoak.

Korrikaren arrakasta ere ez al da pozgarria izan, Euskal Herri euskalduna lortzeari begira? Amaiera non eta Iruñean! Atzo ezinezkoa iruditzen zitzaigun! Bai. Baina folklorismotik ere izan ohi du, eta ofizialtasuna zazpi lurraldeetan lortzetik eta euskara normalizatzetik urrun gaude.

Hogeita batgarren mende honen hasieran, hamar urte baino ez alde-aldera, katalanak guri begira egon ohi ziren, guretik ikasteko. ERCKo Carod Rovirak zioen Kataluniatik Euskadiren alderako begirada etengabea zela. Orain alderantziz gabilta. Axioma bihurtu da esatea herriak bilakatu dituela independentista hango politikari estatutistak, eta

hemen ere hala gertatuko dela. Hortik Gure esku dago. Olatua garrantzitsua da eta hura helmugara bideratzeko hainbat arlotako abertzale fin ausartak behar ditugu. Udazkenetik aurrera han gertatzen denak eragin handia izango du gurean; onerako!

Politikatik kultur identitatara etorri, ERCKo militante historiko Heribert Barrerak zioen Euskal Herriak errazago zeukala identitatea mantentzeko, baina hori zioen katalan identitatean katalana ezinbesteko jotzen zuelako eta euskal identitatean, berriz, ez, hemen gertatzen dena ikusita. Hortxe ikusten dut nik arrisku handiena: kulturalki erabat asimilatzearena. Gutxiz gehienak erdal hedabide eta erdal kultur adierazpideetatik elikaturik, nola lortu burujabetza kulturala?

Telesforo Monzonek Patxi Zabaletari ziotson herriek herri bezala irauteko, eguneroko premia ekonomiko eta sozialak asetzeko beharrezkoa denaz gain, ideien eta kulturaren aldetiko borroka ere behar-beharrezkoa dutela, herriak baduelako norbanakoen izatearen aurretik eta ondotik ere, denboran irauten duen nortasuna.

Independentzia politikoa eta kulturala biak ditugu behar-beharrezkoak eta azken honetan hizkuntza ezinbesteko. Lehenik, politikoa behar dugula? Hala jo dute Katalunian. Eta lorturik ere –zaila baina egingarri!–, hizkuntza eta kultura katalana orokortzea kostatuko zaie gehien! Eta guri ere bai. ■

Horrela bai



Miren Artetxe
BERTSOLARIA
@mirenartetx

Berriatukoa da bera. Eta senegaldarra. Eta ze grazia egiten duen, aizue, *berritxuarrez* tar-tar-tar hizketan. Ze jatorra. Etorri, gure hizkuntza ikasi, eta gurera moldatu. Horrela bai.

Eredugarri gisa aurkeztzen dugu euskaldunen indizea %90etik gorakoa duen udalerrri batera zazpi urterekin etorrita –eta ordurako ziur aski eleaniztuna izanik– euskara ikasi duen pertsona. Gure gutxitutasunetik, poza ematen digulako. Gure arrazismotik, ezezagunarekiko mesfidantza leuntzen duelako *besteak* norbere hizkuntzan hitz egiteak. Eta gure chauvinismotik, halakoxea behar duelako etxerako moduko etorkinak.

Ez *beste horiek* bezalakoa, alegia.

Beste horiek, ordea, beharbada ez dira UEMAKo herri batean bizi. Beharbada ez zaie euskara ikasteko doako zerbitzurik eskaini. Beharbada erdaraz hitz egiten diegu geuk. Beharbada, ez zaigu axola zein hizkuntza –nagusia ala gutxitu– den haien berezko hizkuntza, eta hemen hizkuntza hori hitz egiteko aukerarik duten ala ez. Ea seme-alabek hizkuntza horretan hitz egiten ote dieten ala erdaraz erantzuteko joera duten. Eskolan nola lantzen ote den hizkuntza aniztasunaren kontua. Eta nola bizi duten beraiek.

Baina, ze eredugarria berriatuar hori, aizue. Horrela bai. ■

ITSASOAN ANIMALIAK ADINA PLASTIKO

Gure ozeanoak kutsatzen dituzten hondakin plastikoen gaia orrialde dezente ari da hartzen azkenaldian komunikabideetan. Nazio Batuen Erakundeak berak neurriak hartuko dituela adierazi du, 2020. urterako mikroplastikoak eta erabilpen bakarreko plastikoak ezabatu nahi ditu eta. Zenbaterainoko kaltea eragiten dugu hondakinokin, ordea?



Garazi Zabaleta
@tirikitran

1901eko maiatzaren 14ean balea agertu omen zen Orioko kostaldean. Hori dio Euskal Herrian ezaguna zaigun bertso sortak. Antzeko zerbait gertatu da aurtengo otsailean Norvegiako Sotra irlan. Han ere balea agertu zen kostaldean, baina zetazeo hura gaitzak jota, hiltzorian iritsi zen itsasbaztererra. Zientzialariek 30 plastikozko poltsa aurkitu zizkioten sabelean. Itsasoko ekosistemetan gertatzen ari denaren –edo egiten ari garenaren– adibidetzat har dai-teke balearen kasua.

“Minutu bakoitzeko zabor kamioi batek daukan hondakin kopurua botatzen dugu itsasora”. Esaldi horrekin hasi zuen Ibon Galarraga ekonomiala-

riak bere hitzaldia martxoan egin zituzten EkoFish jardunaldietan, Donostiako Aquariumean. Zer esan nahi du datu horrek? Bada, erreportaje hau irakurtzeko beharko dituzun hamar minutuetan, hamar zabor kamioi oso ozeanoetan deskargatuko dituztela: 120 tona hondakin, gutxi gorabehera. Bada zerbait.

Plastikozko irlak

Ezagunak egin dira azken urteetan “plastikozko irla” izendatutako ozeanoetako zabor pilaketak. Itsasoko ur korronteen gure arrasken antzera funtzionatzen dute: “biraketa ozeaniko” deiturikoak errota formako ur korronte erraldoiak dira, milaka kilometroko diametroa har-



tzen dutenak. Itsasoa barreiatutako plastikoez eta zaborrek errotaren erdigunean pilotzeko joera dute. Horrela sortu dira egun Ozeano Barean, Atlantikoan eta Indiakoan dauden bost “plastikozko irlak”. Handienak, Ozeano Bare iparraldekoak, 1,4 milioi kilometro koadroko azalera du, Iberiar penintsula osoaren bi halako baino gehiago.

Hainbat ikerketaren arabera, eta Javier Franco AZTiko ikerlariak EkoFish jardunaldietan azaldu bezala, planktona baino plastiko gehiago dago itsasoa gaur egun. “2050. urterako itsasoa arrainak baino plastiko gehiago egongo dela uste da, pisuaren arabera”. Bainondik iristen dira hainbesteko zabor



» Erreportaje hau irakurtzeko beharko dituzun hamar minutuetan, hamar zabor kamioi oso deskargatuko dituzte ozeanoetan

» Itsas hondakinen %80 inguruk lehorreko jardueretan dauka jatorria; plastiko gehienak erreketatik egiten du itsasorako bidea

» Ozeano Barean, Atlantikoan eta Indiakoan bost “plastikozko irla” daude; handiena, Ozeano Bareko iparraldekoa, Iberiar penintsularen bi halako baino gehiago da

GREENPEACE

kantitateak gure itsasoetara? Zeintzuk dira hondakin horien iturri nagusiak?

Itsas hondakinen %80 inguruk lehorreko jardueretan dauka jatorria: ingurune industrializatuak eta biztanle-dentsitate handiko tokiak dira iturburu nagusiak, eta lurretik itsasorako sarbidea erreketatik egiten du plastikoen gehiengoak; zehazki, lehorreko jatorriko plastikoen %80 modu horretan iristen da ozeanoetara.

Bestalde, itsasoko jardueretan hondakin gehien sortzen dituen arrantza da. Aipatzekoa da, esate baterako, “mamu arrantzaren” eragina itsas ekosistemetan: utzitako sareek edota arrantzako materialek, aktibo ez daudenek, itsa-

soko animalia eta organismoak harraipatzen eta kaltetzen jarraitzen dute urte luzeetan, plastikoak degradatzeko behar duen denbora guztian.

Itsasoko ekosistemen hiltzaile

Hondakin plastikoen itsasoko bizidunei eragiten dizkieten kalteez hitz egitean, garrantzitsua da plastikoen tamainaren arabera sailkapena egitea. “Hondakin handiek organismo handiagoei eragiten diete, baleei edota arrainei, esate baterako. Tamaina txikiagoko hondakinek —nanopartikulek, mikropartikulek—, berriz, maila baxuagoko egitura biologikoei eragiten diete”, zioen Javier Francok.

Makroplastikoetan jarri zuen arreta Javier Francok bere hitzaldian: arrantza-ko sareak, plastikozko poltsak, sei latakoko *pack*-en plastikozko botila eta ontziak... Nola eragiten die horrek guztiak itsasoko fauna eta florari?

Batetik, organismo asko plastiko zatietan korapilatu edota urkatzen dira. Itsas hegaztien kasuan, adibidez, 400 espezie ingururen artean 103 dira kaltetuak (%25), eta itsas ugaztunen artean %42 inguru. Korapilatzeek modu askotan eragiten diete animalioi: ahoa harrapatu eta elikadura galaraziz, mugimendu askatasuna murriztuz, gorputzeko atalen anputazioak eraginez edota infekzioak sortuz, adibidez. Ani-

malia ugari hiltzen dira arazo horien ondorioz.

Beste ondorio bat asfixia eta itotzea dira. Batez ere itsas hondoa pilatzen diren plastikoen eraginean, hainbat organismo ezinezko zaio bere funtzio fisiologiko nagusiak behar bezala betetzea. Esaterako, landare-espezie eta komunitate askoren hazkundera murriztu egin da hondakin asko dauden guneeetan, eguzki argia pasatzen uzten ez dutelako. Fotosintesia ongi egitea galarazten dieten hondakinek mangladi, fanerogamo eta paduretako landare-espezieei eta organismoiei. Hainbat koralen kasutan, %85 arte galdu direla kalkulatu dute zientzialariek arazo horien ondorioz.

Plastikoa irenstea da beste ohiko arazo bat. Itsas hegaztien %40 dira kaltetuak, eta ugaztun espezieen erdiei eragiten die arazo horrek. Animaliek plastikoa beren harrapakinekin nahasten dituzte maiz –horretan plastikoen koloreak eragin handia du–, eta beste zenbait kasutan, animalia filtratzaileen adibidez, nahi gabe irensten dute. Antzekoa gertatzen da bigarren mailako irenstearekin, hau da, animalia batek beste bat jaten duenean sabelean plastikoa dituela.

Plastikozko confetti-a itsaso zabalean

Jakin badakigu, honezkero, plastikoen ezaugarri bereizgarria dela degradatzeko behar duten denbora luzea. Hori da plastikozko hondakinen arazo handienetakoa gaur egun. Ondoko grafikoa ikus daitekeenez, behin itsasora iritsita plastikoen urteak, hamarkadak edo mendeak ere pasatu ditzakete uretan bueltaka, desintegratu arte. Eta zer gertatzen da plastikoa uretan dagoen denbora luze horretan? Pixkanaka zati-tu egiten dela.

“Haustura mekanikoen eta fotodegradazio eta biodegradazio prozesuen ondorioz, itsasoko plastikoa zatitzen doaz, horietako asko mikroplastiko edo nanoplastiko bihurtzeraino”. Amaia Orbea EHUKo ikertzailea eta PLASTOX proiektuko kidea da. Mikro (bost milimetro baino gutxiago) eta nano (1-100 nanometro) tamainuko plastikoen itsas ekosistemetan duten eragina aztertzen ari da, besteak beste.

200.000 mikroplastiko partikula inguru daude gaur egun itsasoan kilometro koadro bakoitzeko, Ekologistak Martxan elkarteak *Itsas hondakinak*,

ZENBAT DENBORA BEHAR DU PLASTIKO MOTA BAKOITZAK DESKONPOSATZEKO?

ARRANTZA-HARIA		600 URTE INGURU
BOTILA		500 URTE INGURU
MAHAI TRESNA		400 URTE INGURU
PIZGAILUA		100 URTE
EDALONTZIA		65-75 URTE
POLTSA		55 URTE
ZAPATA ZOLA		10-20 URTE
ZIGARROKINA		1-5 URTE
GLOBOA		6 HILABETE

» Plastikoen ezaugarri berezia, eta haien kudeaketaren arazo nagusia, degradatzeko behar duten denbora luzea da. Behin itsasoan, hamarkadak edo mendeak eman ditzakete uretan bueltaka, desintegratu arte

plastikoa eta mikroplastikoa txostean argitaratu duenez. Plastikoa pieza txiki horiek erpin oso zorrotzak izan ohi dituzte, eta irensten dituzten animaliei zauriak eragiten dizkiete sarritan. Hori gutxi balitz, urteak itsasoan daramatzan plastikoa mikrobio ugari biltzen dituela kontuan izanda, zauri fisikoa ez ezik, patogeno askoren iturburu izaten dira mikroplastikoa arraintzat, hegaztientzat, eta beste animalia askorentzat.

Arrisku nagusia da beren tamainagatik kate trofiko oinarri-oinarriko organismoek irensten dituzketela. Organismo txiki horiek ondorengoei pasatzen dizkiete herentzian mikroplastikoa, eta modu horretan kate trofiko osoan sortzen dituzte kalteak, kasu batzuetan gure plateretan bukatu arte. “Arazo ho-



CHRIS JORDAN

nek ekosistema osoari egiten dio kalte. Ekosistemak sistema oso konplexuak dira etengabeko hartu-emanen dau-denak, eta atal bat kaltetua denean sistema osoak sufritzen ditu ondorioak”, azaldu zuen Orbeak EkoFish jardunaldietan.

Gaur egun, plastiko handiagoen degradazioak sortutako mikroplastikoez gain, erabilpen industrialerako propio ere sortzen dira tamaina horretako plastikoak. Kosmetika enpresa ugari, esaterako, plastikozko mikrosferak erabiltzen dituzte krema eta esfoliatzaileetarako. Milaka, milioika mikrosferak itsasoan bukatzen dute egunero gure saneamendu sistemen bidez.

Nola heldu gara honaino?

1950eko hamarkadan plastiko sintetikoaren produkzio masiboari ekin zitzaionetik, esponentzialki hazten joan da material horren produkzio eta kontsumoa. Gaurko gure gizartean plastikoen erabateko dependentzia dugu, nonahi dago material hori. “Plastikoa-rena egungo industria nagusietakoa da, milioika eta milioika euro eta dolar mu-

gitzen ditu urtero”, esan zuen Amaia Orbeak bere hitzaldian.

Urtean 300 milioi tona inguru plastiko sortzen dira munduan, eta orain arteko hazkunde joerak jarraituko balu, 2050. urterako 2.000 milioi tonarainoko produkzioa iristea aurreikusten da. Larriena da, kalkuluen arabera, fabrikatzen diren produktu plastikoaren erdiak

» Arrisku nagusia da kate trofiko oinarri-oinarriko organismoek plastiko zatirik txikienak irentsi ditzaketela, eta hala, kate trofiko osora hedatzen direla kalteak, kasu batzuetan gure plateretan bukatu arte

Itsas hegazti baten gorpua, sabelean pilotutako plastikozko hondakinak agerian.

erabilpen bakarra duela. “Plastikoen eta itsas hondakinaren gaiak gure baliabideen kudeaketa txarraren adibide bat gehiago dira”, zioen Ibon Galarragak.

Izan ere, hondakin plastikoek ingurumenari eragiten dizkieten ageriko kalteez gain, ekonomialariaren ustez kontuan edukitzekoak dira alde ekonomikoak ere. “Plastikoa sortzeko erabiltako petrolio guztiaren eta eragin ditugun kalte guztien ondoren, materialaren balioaren %95 galdu egiten da urtero. Plastikoen hain erabilpen txarra egiten dugu, ezen bere balioaren zati handiena galtzen dugula, komuneko zuloatik 100.000 milioi euro inguru botako bagenitu bezala”.


Horri gehitu behar zaizkio itsasoko plastikoen sektore ekonomiko garrantzitsuetan, batez ere turismoan eta itsas aisialdian, eragiten dituzten galerak. Europar Batasunak kostalde eta itsasoak garbitzen urtero 630 milioi euro gastatzen ditu, besteak beste.



ISTOCKPHOTO / FERGREGORY



ISTOCKPHOTO / FERGREGORY



ISTOCKPHOTO / FERGREGORY



ISTOCKPHOTO / FERGREGORY

Plastikorik onena, sortzen ez dena

Zer egin kalteak gutxitzeko? Ekologistak Martxan elkarteak hainbat gomendio ematen ditu aipatutako txostenean, plastikoen ekonomia zirkular baterantz pausoak ematen hasteko: ezer baino lehen, plastikoa murriztea, berrerabiltzea eta birziklatzea (ingelesezko 3 R-ak: *Reduce, Reuse, Recycle*) lirarteke eredu zirkular horretara pasatzeko oinarritzko neurriak. “Plastikoen zikloa zerbait linealtzat hartu dugu beti: lehengaiak hartu, produzitu eta bota”, zioen Galarragak. Horri buelta ematea da kontua.

Animalia asko plastiko zatiekin korapilatu edota urkatu egiten dira. Beste kasu batzuetan, hondoetako plastiko pilaketak fotosintesia ongi egitea galarazten du. Plastikoa irenstea da ohiko beste arazoetako bat. Itsas hegaztien %40ri eta ugaztun espezieen erdiari eragiten die horrek. Animaliek plastikoak beren harrapakinekin nahasten dituzte maiz –plastikoen koloreak eragin handia du horretan–, eta beste zenbaitetan nahi gabe irensten dituzte, edo dagoeneko plastikoa gorputz barruan duen animalia bat jaten dute.

Baina ez da nahikoa 3 R horiek buruz ikastea. Nahitaezkoa da gizarteak ekonomia zirkularraren beharra ulertzea eta jokatzeko modu orokorrean txertatzea, gure etxeetan eta enpresetan, adibidez. Gobernuetara eta instituzioetara neurriak har ditzatela eskatzea garrantzitsu izanik ere, erosketetara goazenean oihalezko poltsatxoak eramanez, erabilpen bakarreko ontziak baztertuz edota ontziratu gabeko produktuak erosituz, ekintza txiki handi horiekin ariko gara benetan egoera aldatzeko lehen pausoak ematen. ■

LOGOPEDIA

KOMUNIKAZIOAREN FISIOTERAPEUTAK

Logopedia "R" hizkia "ondo" esaten lagundu eta marrantak lausotzen dituen terapia gisa definitzea motz geratzea da. Komunikazio arazoaren aurreikuspena eta balorazioa lantzen ditu, besteren artean.



Ainhoa Mariezkurrena Etxabe

@xorginkeiak

Gero eta jende gehiago joaten da logopedarenera. Maider Eginok Sagasta logopedaren hitzetan, jendearen kontzientziazioa, gaixotasun edo arazoei izenak jartzea eta lanbidearekiko sentsibilizazioa dira arrazoi batzuk: "Jada ez dugu esaten 'nire alaba alferra da eta kito'. Orain izena jartzen diogu gertaerari eta konponbidea ematen saiatzen gara".

Logopediak bi arlo lantzen ditu batik bat. Hezkuntzakoa: ahoskera, hizkuntza atzerapena, letrak gaizki esatea, irakurketa, idazketa... Eta klinikoa: ahotsa, mingainaren kokapena, garuneko kalteak, iktusak, alzheimerra, enboliak... Egoera hauetan guztietan hizkuntza arazorik balego, logopedarekin landuko litzateke. Arazoak norberak edo beste inork detekta ditzakeela gaineratu du Eginok: "Neurologoek, pediatrek, dentistek, otorrinoek, irakasleek, orientatzaileek eta gurasoek ezinbesteko papera dute honetan. Gero eta gehiago hartzen da kontuan, zorionez".

Kontzientzia eta lanketa

Era berean, aitortza lortzeko borrokan dabiltzala kontatu digu eta ezjakintasun-



naren aurreko lanketa egiten, arazoaren jatorriak "desegokiak" direnean ez baita asmatuko konponbidearekin. "Hortzetako aparatua hiru urtez eramateak ez du ezertarako balio, mingainaren kolokazioa gaizki izan eta lantzen ez bada, gerora hortzak berriro mugituko lirartekeelako; arazoa ez litzateke konponduko", adierazi digu logopeda arrasatearrak. "Gaizki ahoskatzearen jatorria mukiak izan daitezke. Mukiek belarriak ixten dituzte eta entzumenaren kalitatea okertu. Entzuten duguna ahoskatzen dugunez, gaizki ahoskatzera eramango gaitu. Sudurra garbitzea oso garrantzitsua da". Horretarako, urpean igeri egitea gomendatzen du.

Beste ahoskera arazo batzuk estetikokoak soilik izan daitezkeela aitortu du eta norberak erabakitzen duela landu ala ez: "Hitz egitean letrak nahasten baditugu eta ahoskeran soilik eragiten badu, ez lantzea erabaki dezakegu, baina esan bezala idazten badugu, bigarren arazo bat sortuko zaigu: idazkerarena". Eginok azaldu digunez, pertsona batzuek 'R' hizkia zuzentzeko jotzen dute harengana, eta bada 'R'-a "gaizki" esaten ikasi nahi duenik ere".

Arrasaten sortua da Maider Eginok Sagasta. Logopedian diplomaturia, jaioterriko "Iratzarri" eta Gasteizko "Hitzak" logopedia zentroetan egiten du lan.

Lanketa etxean egin beharra

Arazoa erabat konpontzen da zenbaitetan, besteetan komunikatzeko gaitasunak garatu ahal dira, baina batzuetan guztiz gainditzea ezinezkoa izango dela aitortu digu Eginok, alzheimeraren kasuan, esaterako: "Luzera, hitz egiten ahaztuko zaiola badakigu, baina bidean landuko den zerbait da". Askotan, galdutzat ematen denean, garrantziarik ez zaiola ematen gaineratu du.

Hezkuntzaren arloan, bestalde, asko eta asko dira ikasturtea gainditzeko logopedarengana hurbiltzen direnak, gurasoek bideratuta. Eginok dioenez, ordea, arazoak ez dira konpontzen soilik astean logopedarekin pasatako bi orduetan. "Norberak etxean landu beharrekoa da. 24 ordu ditu egunak, 24 ordu arnasak". ■

Cheikhouna auzoan nahi du Txantreak

LEGEA VERSUS HUMANITATEA

Cheikh Dieng da bere izena, 'Cheikhouna' deitzen dute. Espainiako Estatutik kanporatzea berretsi zuen Nafarroako administrazioarekiko auzien 2. epaitegiak maiatzaren 9an. Edozein unetan, polizia atxilotu eta kanporatu dezake Iruñetik, Txantreatik, berak horrenbeste maite duen bere auzotik.



Xabier Letona

@xletona

ARGAZKIAK: JOSU SANTESTEBAN

2015etik dago kanporatzeko soka lepo inguruan duela, baina helegitearen zain zegoen. Orain etorri da ebazpena eta soka lepoa estutzen ari zaio; mina du, nabari zaio, eta hala ere irribarre egiten du: "Zortea izango dudala pentsatu behar dut, zortea"; gainean zorigaiztoa duenak elkarriketan zehar hainbatetan aipatuko duen hitza, zortea.

Txantrea ondoko Antsoainen kaleko saltzaile ari zela hasi zen egungo amesgaiztoa, 2015eko abenduaren 22an: "13:00ak ziren, taberna batera sartu nintzen eta hiru polizia sartu ziren nire atzetik, uste dut jarraika ari zirela; paperak eskatu zizkidaten eta ez nituen. Atxilo eraman ninduten eta sei ordu egin nituen komisaldegian. Kanporatze aginduekin atera nintzen handik".

Orduan jarritako helegitea da orain ebatzi dena. Epaia eman zenetik hamabost egun ditu helegitea jartzeko eta abokatuak epea agortuko du egoera luzatzeko. "Baina arriskuan nago hala ere; nire ezagun asko kanporatu dituzte helegitearen zain zeudela".

Lana-agirien buklea

Denbora behar du, urri den denbora. Lana lortzen badu agiriak lor ditzake, legaltasuna, eta horrela kanporatzea saihestuko luke. Baina ez dago lana bi-latzerik agiritik gabe: horra legez kanpoko migratzailea galtzen den labirintoa. Baina Felipe Castellek dioskunez, badu irteerarik: "Zaila, baina posible da agiritik gabe lana lortzea, lehenik behin-behineko lan-hitzarmen bat lortu behar da. Horretan ari gara buru belarri, erlojuaren kontra". Felipe ere elkarriketara etorri da, alde guztietara laguntzen duen Txantreako Cheikhounaren lagunen taldekoa da.

Txantrean dagoeneko egin dira hainbat ekimen duela hamar urte bertan bizi den bizilagunaren alde. Azkena maiatzaren 7ko manifestazioa izan zen, non mila bat pertsona bildu ziren bere kanporatze aginduaren aurka. Hunkituta ageri da senegaldarra auzoak ematen dion sostenguekin. Ez da ohikoena, oro har, immigranteak bakardadean egin behar ei dio aurre kanporatze agin-

duari, ohikoan SOS Arrazakeriak lagunduta, baina ez auzo oso bat atzean duela. "Sostenguagatik hunkituta, lagun batek negar egin zuen manifestazioan", diosku Cheikhounak. Azken agerraldi hartan Senegaleko komunitateko kide ugari agertu ziren; ohi baino gehiago, haiek ere beldur dira eta. "Auzoan indartsu sentitzen naiz, beti laguntzen naute, beti eman didate sostengua, nire familia dira. Auzoarekiko esker ona besterik ez dut", dio tinkotasunez.

Touba-Iruñea

Touban bizi zen Cheikhouna, milioi erdi biztanle pasatxo duen Senegaleko bigarren hiririk handienean. "Ehungintza enpresa batean egiten nuen lan gurasoak laguntzeko, arropa josten, baina ez nuen diru nahikorik eta alde egitea pentsatu nuen".

Senegaldik 2006ko irailaren 9an atera zen. "Ostirala zen eta kayukoan irailaren 20an itsasoratu ginen". Eta gurasoak? "Ez zekiten ezer, aitak beti esaten zidan ez sartzeko kayuko batean, eta egia



» “Auzoan indartsu sentitzen naiz, beti laguntzen naute, beti eman didate sostengua, nire familia dira”

esan, nik ez nuen hori buruan. Baina egun batean aukera izan nuen eta aitari esan nion kanpora nindoala egun batzuetarako, festa batera, eta itzuliko nintzela. Gezurra zen, jakina”.

“87 bat pertsona ginen kayukoan eta hamargarren egunean erregairik gabe gelditu ginen itsasoan. Arrantzontzi espainiar batek ikusi gintuen eta Gurutze Gorrira deitu zuen. Azken hauek erreskatatu gintuzten eta Tenerifera eramán, irailaren 30ean. Guztiak iritsi ginen onik. Handik Madril ondoko Miraflores herrira bidali gintuzten, eta 27 egun egin genituen migratzaileentzako zentro batean. Libre utzi gintuztenean nik Madrilera jo nuen kale saltzaile moduan, baina poliziak hainbatetan gelditu ninduen eta erabaki nuen alde egitea handik”.

Lagun bati galdetu zion: “Aizu, inguruko zein herritara jo dezaket arazorik ez izateko?”. “Hemendik gertu daukazu Euskal Herria, iparraldean da eta euri asko egiten du, erantzun zidan hark, eta hala etorri nintzen hona, 2006ko aben-

duan”. Sumatzen duzu arrazakeriarik hemengo kaleetan? “Arrazakeria alde guztietan dago, baita beltzen artean ere, baina hemen auzoan nik ez dut halakorik sumatu”.

Telebistan Europaz ematen den irudiak izan ote zuen eraginik bera Europara erakartzeko? “Ez, han dirua dutenek ikusten dituzte Europako kanalak, baina nik ez. Bizitza aldatu nahi nuen eta pentsatzen nuen Europara iritsi, lan egin eta lortuko nuela hori, baina ez, etsigarria izan da. Kale saltzaile aritu behar duzu, beti agiriaren atzetik lana lortzeko, eta oraindik ez ditut lortu. Hala ere, borrakan jarraitzen dut”. Agiriak lortzen dituenean itzuliko da Senegalera familia bisitatzerá, baldin eta aurretik hegazkinen sartu eta kanporatzen ez badute. Badu harremanik familiarekin, “telefonoz baino gehiago whatsapppe, doan da eta”.

“Cheikhounarekin dagoen hori”

Elkarrizketaz elkarrizketa ari da, bere kasua oso ezaguna egin da Euskal Herri

osoan, eta urduri da, nahastuta ere bai zurrumbiloan. Elkarrizketaren amaieran *Diario de Navarra* kazetari batek deitu dio elkarrizketa egiteko. Maiatzaren 8an Joseba Asiron Iruñeko alkateak hartu zuen. Egoeraren gorrian ez da umorerik falta eta alkatearekin egindako argazkia prentsan ikustean laster hasi zen entzuten Txantrean: “Aizu, nor da Cheikhounarekin dagoen hori?”.

Ataka estuan bizi da senegaldar-txantrearra, hegazkinaren eskailerak buruan dituela. Auzoan 10 urte erabat integratuta egoteak ezer gutxi balio dio agiriaren sistemari, batez ere beltza bazara. Beste behin ere legaltasuna humanitatearen gainetik jarri dute epaitegiek. Cheikhounak lan bila jarraitzen du eta badu auzotarren laguntza horretan, baina auzitegien agindua ere hor da, edozein unetan bere gainean erortzekotan. Nor iritsiko da lehenago, lana ala polizia? Egoera horretan irribarre nola egin litekeen ulertzea ere ez da samurra. Berak argi du, edozein kasutan, zorte bila jarraituko du. ■

NAFARROAN 3.000 ALDIZ APLIKATU DUTE MOZAL LEGEA FORUZAINGOAK ETA UDALTZAINEK

Libre-Eleak mugimenduari esker eskuratu ditugu Nafarroako Gobernuaren menpeko Poliziak Mozal Legeari emandako erabileraren datuak. Hala, 2015eko uztailetik eta 2016ko abendura bitartean, Mozal Legea erabiliz, 11.000 isun jarri dituzte Hego Euskal Herriko bi Polizia autonomikoek. Bi legebiltzarretako gehiengoek legea behin baino gehiagotan arbuiatu izana ez da nahikoa izan milaka isunei amaiera emateko.



Axier Lopez
@axierL

Uztailean bi urte beteko dira Mozal Legea indarrean dagoela. Halere, Nafarroako Barne Sailak aurtengo maiatzera arte ez du eman legearen erabilpenaren inguruko daturik. Eleak-Libre mugimenduaren eskutik jaso ditu ARGIAk.

Datu horien arabera, Nafarroan 3.052 aldiz aplikatu dute Moza Legea 2015eko uztailaren 1etik 2016ko abendura bitartean. Nafarroako Foruzaingo eta udaltzaingoen isunak dira, eta beraz, Nafarroako argazki osoa izateko, Espainiako Poliziak eta Guardia Zibilak jarritako zigorrak gehitu beharko lirateke –datu horiek oraindik ez ditu publiko egin Espainiako Gobernuak–.

Isunen multzorik handiena 36.16 artikuluari dagokio. Legez kanpoko drogen salerosketa eta kontsumoa zigortzen du, erabilera pertsonalerako marihuana edo hatxisa aldean eramatea, adibidez.

Eskubide zibil eta politikoei zuzenean eragiten dietelako, oso kritikatuak diren hiru artikulua ere baliatu dituzte Nafarroako poliziek. 130 isun jarri dituzte “Poliziaren aginduak ez betetzea” zigortzen duen 36.06 artikulua zehazkabea baliatuta. Segurtasun indarrei “errespetu faltaz” zuzentzeagatik, 105 zigor jarri dituzte. Eta 54 izan dira “eremu publikoa oztopatzeagatik” –plaza batean bilera bat egitea, kasu– jarritako zigorrak.

Zulo beltza

Emandako datuen artean argitu gabe, hutsune handi bat dago: 323 isunen inguruan ez dute inolako datu edo arrazoirik eman. Eleak-Libre salatu duenez, horrelako isun kantitate handi baten berri ez emateak, ageriko gardentasun eza horrek ez du laguntzen denon diruarekin ordaindutako funtzionario publikoen lanaz mesfidati ez izateko, eskubide zibil eta politikoen errespetuaren ikuspegitik.

Orotara, astero 33 isun jarri dituzte Nafarroako erakunde publikoen menpeko poliziek.

Nafarroako ordezkari politiko eta sozialen gehiengoak kontra

2016ko apirilaren 11n Nafarroako Legebiltzarrak Mozal Legea eta haren erabilpen okerrak arbuiatu zituen. Geroa Bai, EH Bildu, Ezkerra, Ahal Dugu eta PSN-k alde bozkatu zuten, UPN abstenitu zen eta kontrako boz bakarra PPko ordezkariarena izan zen. ARGIAren aurkako isunaren harira, Nafarroako Parlamentuan parte hartu genuenean ere argi adierazi zuen indar politikoen gehiengoak Mozal Legearen erabileraren aurkako jarrera.

11.000 isun Hego Euskal Herrian


Nafarroako datuei EAEkoak gehituz gero ondorengoa da Hego Euskal Herriko Polizia autonomikoek eta Udaltzain-

goek jarritako isunen kopurua: 11.139. 2017ko datuen berri ez dute eskaini bi gobernuak. Edozelan ere, herritarren, ordezkari politikoen eta herri mugimenduen gehiengoa Mozal Legearen kontra azaltzea ez da nahikoa izan gobernu autonomikoen menpeko polizien jarrera aldarazteko.

Eleak-Libre mugimenduaren protokoloa

Mozal legea aplikatzen den kasuei aurre egiteko protokolo bat prestatu du eskubide zibil eta politikoen aldeko Eleak-Libre mugimenduak. Isunduek desobedientziaren bidetik joz gero –isuna ez ordaintzea eta salaketa publikoa egitea– Eleak-Libre mugimenduak laguntza, babesa eta aholkularitza juridikoa eskainiko dizkie. Horretarako, mugimenduekin elkarlanean ari diren herrialde bakoitzeko abokatuak prest izango dituzte eta zigortuekin harremanetan jartzeko e-mail hau martxan jarri dute: mozalikez@riseup.net

Eskubide zibil eta politikoa urratzen diren kasuen datu base bat ere osatzen ari dira abokatuarekin batera. Isunen nolakotasuna, zigor motak, epaiak eta poliziek erabilitako argudioak eta azalpen juridikoak bilduko dituzte, isunen gaineko kontrola izan eta legearen aurkako salaketa hobetzeko asmoz. ■



MOZAL LEGEA

BATEZ BESTE 33 ZIGOR ASTEAN

eta POLIZIA FORALA

2015. APIRILA

2016. ABENDUA

3.052

ALDIZ

APLIKATU DU LEGEA NAFARROAN

2015ean 1.213 2016an 1.839

2016KO APIRILAREN 11N
LEGE BILTZARRAK MOZAL LEGEA
ARBUJATU ZUEN



34 ALDE 15 ABSENTZIO 1 KONTRA

ARGIA

LEGEAREN
ARTIKULUA

ZER ZIGORTZEN DUEN

NAFARROAKO POLIZIA FORALAK EZARRITAKO ISUNAK

36.16

Legez kanpoko drogen
salerosketa eta kontsumoa

2.378

--

Artikulu zehaztu gabeko isunak

323

36.06

Poliziar desobedientzia,
identifikatzeari uko egitea...

130

37.04

Segurtasun indarrei "irain egitea
edo errespetu faltaz" zuzentzea

105

36.03

Eremu publikoak oztopatzea,
desordena sortzea

54

36.18

"Droga toxikoen" landaketa
herritarrek ikus dezaketen tokietan

23

Besteak

39

ESKUBIDE
ZIBIL ETA POLITIKOEI
ZUZENEAN ERAGITEN DIEN
HIRU ARTIKULU



INFOGRAFIA: Axier Lopez ILUSTRAZIOA: Unai Gaztelumendi DATUAK: Nafarroako Gobernuko Barne Saila

OKUPAZIOA



BIZI EREDUEN TALKA ERREKALEORREN





Lukas Barandiaran

@barandiluk

ARGAZKIAK: KAULDI IRIONDO

Gasteiz kanpoaldean dago Errekaleor, Euskal Herriko eta Espainiako Estatuko gune autogestionaturik handiena. Joan den ostegunean, Eusko Jaurlaritzaren Industria sailaren aginduei jarraiki, Ertzaintzak eta Iberdrolak osatutako operatiboak auzoa argindarrrik gabe utzi zuen. Bizilagunek desobedientzia zibilarekin erantzun zieten: Ertzaintzak hiru pertsona atxilotu eta hainbat lagun zauritu zituen.

1950eko hamarkadan eraiki zuten 192 etxebizitzako langile auzoa, baina 2002an, etxebizitzaren burbuila betean, osorik eraitsi eta duplexak eraikitzeko plana egin zuen Gasteizko Udalak. Auzokideak lekualdatzen hasi ziren, baina krisiak proiektua geldiarazi ostean auzoa ia hutsik geratu zen.

2012an hamar bat ikaslek hasitako okupazioaren bidea geroz eta eman-korragoa da. Egun ia 150 pertsona bizi dira, eta komunitate indartsua osatzen dute: auzoa kudeatzeko hainbat lantalde dituzte eta hilean bi asanblada orokor egiten dituzte. Baratza, okindegia, musika estudioa, gaztetxea, inprimategia, haur gela eta liburutegia jarri dituzte martxan, besteren artean.

Gorka Urtaran Gasteizko alkateak adierazi du ostegunean Ertzaintzak eta Iberdrolak egindako esku-hartzea "erabat justifikatua" dagoela, elektrizitate instalazioa "arriskua" dela auzokideentzat eta beren segurtasunagatik moztu dietela argia. Errekaleorreko erai-kinak "suntsitzeko" asmoa ere publiko egin du, eta berehalako erabakiak hartu behar direla esan du.

Errekaleor Gasteizko eta Euskal Herriko herri mugimenduan errotutako eragilea da. Herri mugimendua hauspotzeko lan egiten dute, eta Errekaleorretik aldarrikatzen dute auzoa herriarena dela. Osteguneko erasoaren aurrean, nazioarte mailako manifestazioa deitu dute ekainaren 3an Gasteizen. "Herriarena dena defendatzeko" herri guztia deitu dute bakoitza bere aldarrikapenekin manifestzera: "Errekaleorrek hezur-dura osatuko du herriak muskulua ezar dezan". ■





Azpeitibizi egitasmoa

Nola bultzatu turismoa herri nortasuna eta euskara kaltetu gabe

Azpeitiko Udalak www.azpeitibizi.eus webgunea zabaldu berri du. Herrera turismoa erakartzeko tresna da, luzea izan nahi duen prozesuaren abiapuntua baino ez. Ondoko gogoeta egin du Udalak: lehentasuna ekonomia sustatzea da, eta turismoa horretarako bideetako bat. Turismoa indartzeak ordea, nola eragingo du udalerri euskaldunean? Nola ekarri bisitariak herri nortasuna galdu gabe?



Onintza Irureta Azkune

@oirureta

ARGAZKIA: BURDINBIDEAREN EUSKAL MUSEOA

Azpeitian krisi ekonomikoak gogor jo zuen, langabezia %17koa zen 2013an. Gaur egun %10ekoa da. Langabe gutxiago daude Urola bailarako herrian, baina egoera gehiago hobetzeko asmotan da Udala. Lehentasuna ekonomia sustatzea da, eta besteak beste, turismoa bizitu nahi dute. Gaur egun bi gune turistiko garrantzitsu ditu herriak, Loiolako santutegia eta Burdinbidearen Euskal Museoa. Bisitari gehiago erakarri nahi dituzte, baina ez nolanahi. Azpeitia udalerri euskalduna da. 10.000 biztanletik gorako herrien artean munduko euskaldunena da. 2016ko kale erabilera neurketak dio %81,9k euskaraz egiten duela. 2009an, herritarren %86 ari zen euskaraz. Ahul baino ahulago dagoen hitanoa gehien hitz egingo den herrietakoa izango da Azpeitia. Lehen aldiz egin den kale neurketaren arabera %18,1ak egiten du hika. Alegia, euskara oso indartsu dago, bai-

na horrek ez du esan nahi halako herri euskaldunek hauskortasunik ez dutenik. Azken urteetan, Euskal Herriko udalerri euskaldunenetan euskararen ezagutzak eta erabilerak, biek, egin dute atzera. Turismoak atzerakada azkartu dezake.

Josu Labaka Azpeitiko Udaleko kultura zinegotzia da eta UEMA Udalerri Euskaldunen Mankomunitateko lehendakaria. Honela azaldu digu turismoaren eta udalerri euskaldunaren arteko harremana: "Udalaren hausnarketa kezka edo arrisku horretatik abiatzen da. Eta galdera da ea horren aurrean zer egiten dugun edo zer egingo dugun. Ezin gara ezkutatu, turismoak arriskuak ditu, baina aukerak ere bai, onurak ditu, onura ekonomikoak. Gaur egun turismoa satanizatzeak arriskua dago, baina turismo masifikatua deitzen den horretatik harago, bestelako turismo bat eginez gero, herriaren garapen sozioekonomikoan eragin positiboa du".



Azpeitiko Udalak argi dauka ez duela herri nortasuna galdu nahi, eta herri nortasuna dioenean erdigunean jartzen ditu azpeitiarrak beraiek, euskara, euskal kultura, herri bizia. Alde batetik, nortasuna babesteko gogoeta egiten ari dira, baina era berean nortasun hori bera bisitariarentzat amu dela sinetsita daude: "Ez daukagu zertan gurea ezkutatu eta kanpoan beste nolabait azaldu". Herri euskalduna jarri nahi dute erakuslehoan, atzerritarrentzat, eta euskaraz bizi nahi dutenentzat ere bai. Euskaldunek jakin dezatela Azpeitia euskaraz bisitatzeko eta bizitzeko aukera izango dutela.

www.azpeitibizi.eus

Webgunea da *Azpeitibizi* egitasmoaren abiaburua. Besteak beste *Zatoz onera, zatoz Azpeitira* atala dauka. Azpeitiarrak dira protagonista atal horretan eta



hainbat bideotan haien testigantzak agertzen dira. *Azpeiti gogoangarria* atalean berriz, herriko leku, pertsona eta gertakari historiko ezagunei buruzko edukiak bildu dituzte. Horrez gain, Azpeitia inguruan egiteko ibilbideak jaso dituzte, baita lo, jan eta edateko ost-tuen zerrenda, eta oinarritzko zerbitzuak ere. Webgunea euskaraz baino ez dago. Bistan da lehen kolpean euskaldunak erakarri nahi dituztela. Gerorako utzi dute beste hizkuntzetara itzultzea.

‘Turismoa eta hizkuntza’ lantaldea

Bi gaiak uztartuta ez da gogoeta asko egin izan. Udalerri Euskaldunen Mankomunitatean, duela hilabete batzuk, turismoa eta hizkuntza lotzen dituen lantaldea lanean hasi da eta Azpeitiko Udalak hausnarketa horretatik edan du. Esan daiteke Azpeitiko lehenerientzia dela, UEMaren asmoa gaia lantzen jarraitu eta hainbat proposamen Mankomunitateko udalerrietara zabaltzea da. ■

Argazkian Burdinbidearen Euskal Museoa. Museo hori eta Loiolako santutegia dira herriko gune bisitatuenak. Uztartaria.eus atariko datuen arabera, 2017ko Aste Santuan, %31 bisitari gehiago hurbildu da Loiolako Turismo Bulegora, 1.200 turista. Horietatik, %32,5 Euskal Herrikoak, %53,35 Espainiako Estatukoak eta gainerakoak %15,16.

BABESLEA: **HERNANIKO UDALA**



Herritarrok 4. urtez erabakiko dugu
udal aurrekontuaren 500.000 euro zertan inbertitu

erabaki.hernani.eus



Nola eragiten dio hezkuntza publikoaren egoerak zure seme-alabari?

Martxoak 22, maiatzak 16, maiatzak 23: greba eta mobilizazio faseari ekin diote sindikatuek, "murrizketen eraginez okerrera egin duen egoera" salatu eta Eusko Jaurlaritza negoziatzera bultzatzeko. Guraso batzuek kezka dute ordea: "Irakasleak berriz ere grebara doaz eta zer egingo dugu egun horretan seme-alabekin?". Borrokatu nahi diren puntuek hain juxtu euren seme-alabei eragiten dietela erakusteko idatzia kaleratu dute grebalariek:



Mikel Garcia Idiakez

@mikelgi

ARGAZKIA: ELA

- "Gaur egun tutoreak baja hartzen badu, 2-5 egunez zure seme-alabak irakasle finkorik gabe egongo dira Haur eta Lehen Hezkuntzan; irakasleak txandakatuko dizkiete orduro.
- Gelako ikasle kopurua igotzearen ondorioz, zure seme-alabak 25 ikaslerainoko gelatan egon daitezke Haur Hezkuntzan eta 27rainokoetan Lehen Hezkuntzan.
- Zure seme-alabak arreta berezia behar badu, hezitzaile gutxiegi aurkituko ditu, espezialistek ikasle askoren artean banatu behar dutelako beren jarduna eta ondorioz ordu batzuk baino ezin dizkiotzelako eskaini bakoitzari.
- 2009tik, gela bakoitzeko ikasle ratioa aplikatuz 900 ikasgela gutxiago eta 1.900 irakasle gutxiago daude orain.
- Baliabide eta formazio faltagatik, kompetentziak (tartean konpetentzia digitala) ez dira lantzen.
- Ikasleei egokitutako programak oso politak dira, baina noiz eta nork egin behar ditu?
- Eskola orduetan, irakasleek ez dute nahikoa denbora libre formazioari eskaintzeko.
- Zure seme-alaben 10 irakasletik 4 behin-behinekoak dira", ez finko eta ez egonkor.

Eta gurasoek zer diote?

Aurreko puntuek eztabaida eragin dute jendartean blegean:

Guraso Bat: "Umeak eta gurasoak gara hezkuntza publikoaren bezeroak eta defendatzaileak, eta beti jasaten ditugu irakaskuntzako arazoen ondorioak, alde batetik baliabide falta, bestetik grebak. Sektore pribatuan lan egiten dugunok kontziliazioa lortzen dugu lanaldi murrizketekin, edo aitite-amamekin, edo norbait kontratatuz".

Eneko: "Arazoak konpontzea da arazoak mahai gainean jarri eta elkarrizketa bidez irtenbidea bilatzea. Arazoari irtenbiderik eman ezean, amore ematen da, arazoak bere horretan jarraitzen du eta zuk guraso bezala eta zure seme-alabek ikasle bezala, epe motz-ertainean arazo bat duzue. Grebak ez dira soilik albistegietan arrakasta lortzeko egiten, borrokaren bidez gauzak alda daitezkeen itxaropena kalera ateratzeko egiten dira, eta batik bat gizarte guztia erantzeko kaltegarriak diren murrizketei aurre egi-



teko. Irakasleok saiatuko gara zuen seme-alabei arrazoi hauek azaltzen, baina zuen laguntza eskertuko genuke".

Angiolillo: "Hau arazo politiko bat da, gure gobernuak ez dutelako Euskal Eskola Publikoa bultzatzen. Jaurlaritzak diru publikoa sare pribatura desbideratzen du".

Beste Guraso Bat: "Hezkuntza publikoaren lehentasuna ikaslea da, hauen hezkuntza eskubidea kalitatez bermatzea, eta horretarako irakasleek lan-baldintza egokiak, formakuntza-orduak eta baliabideak behar dituzte. Denok batera egin behar dugu lan egoera honi irtenbidea bilatzeko, benetan hezkuntza sistema publiko baten alde egin nahi badugu".

Guraso Bat: "Bakarrak mesede bat eskatuko nizuke hezkuntzan lan egiten duzuenoi: ez ahaztu gurasoen iritziaz, zabaldu begiak eta belarriak, galdetu... Gurasoak hezkuntzaren errealitatea ulertzeko ahalegina egin behar dugu; eta alderantziz?". ■

SINDIKATUAK VS JAURLARITZA

"Inbertsioa handitu"

Steilas, ELA eta LABen arabera, maiatzaren 16ko grebarekin langileen %80k egin zuen bat. Eskaeren artean daude hezkuntza inbertsioa gutxienez Europar Batasuneko batez bestekora handitzea; ia %40ko behin-behinekotasuna %6ra murriztea; gutxienez 2.000 langile gehiago hartzea; gelako ikasle kopurua %10era jaiste eta ordezkapenak lehen egunetik egitea.

"Ez dago Jaurlaritzaren esku"

Greba ez dagoela "inolz ere" justifikatua, ez dela unea eta sindikatuen eskariak ez direla zentzuzkoak, hori Eusko Jaurlaritzaren erantzuna, Josu Erkoreka leedunaren ahotik: "Eskatzen dutena ez dago Jaurlaritzaren esku". Eta gaineratu du sindikatuak eurak direla "negoziatzeko interes falta" dutenak. Jaurlaritzaren arabera, grebarekin bat egin duten langileak ez dira iritsi %50era.

OPIOAREN BAKEA ETA GERRAK



Nagore Irazustabarrena
Uranga

@irazustabarrena

Kordoba (Espainia), K.a. 4200. Saguzarren Haitzuloan bizi ziren gizakiek opioa kontsumitzen zuten, bertan aurkitutako arrastoen arabera. Suitzan eta Alemanian ere horrelako aztarnak topatu dira. Baina ez dakigu drogaren erabilera ludikoa, medizinala edota errituala egiten zuten.

Mesopotamian, K.a. 3200ekoa da opio-belarraren edo lo-belarraren lehen erreferentzia idatzia eta horrek landarearen erabilera ludikoa behintzat baieztatzen du, "gozamenaren belarra" esaten baitzioten opioari.

Antzinako Egipton erabilera medizinala eman zioten, hainbat hieroglifikotan eta Ebers papiroan azaltzen denez. "Haur txikiek ozen oihu egin ez zezaten" balio zuen, besteak beste.

Grezian izena ipini zioten; Hipokratesek *opós mekonos* (lo-belar zukua) esan zion eta hortik dator opio hitza. Herodotok K.a. 425. urtean drogaren efektu analgesikoa eta antidiarreikoa deskribatu zuen eta haurrei lo egiteko ematea gomendatu.

Erroman K.o. 312an jasotako datuak oso adierazgarriak dira. Hiriko 793 dendatan saltzen zuten eta negozioaren bolumenak zerga-bilketaren %15 hartzen zuen. Baina ez dirudi adikzio arazo larrikeria eragin zuenik; hainbat hitz erabiltzen zituzten, esaterako, alkoholikoak izendatzeko, baina opiomanoak izendatzeko hitz bat bera ere ez da aurkitu.



AMSTERDAMEKO UNIBERTSITATEA

Papaver somniferum edo opio-belarraren ilustrazio zaharra, XIX. mende amaierakoa. Opio kontsumoa askoz zaharragoa da, gutxienez duela 6.000 urtekoa.

Erdi Aroan, musulmanek zabaltu zuten erabilera European, Iberiar penintsularen bidez, baina nagusiki sendagai gisa hartzen zen orduan.

XIX. mendean, Txinan tabakoaren kontsumoa debekatu zuten eta horrek opioarena igoarazi zuen. Hiru milioi txinatarrek kontsumitzen omen zuten. Baina Antonio Escohotado historialari espainiarraren arabera, milioi horiek biztanleriaren %0,5 besterik ez ziren eta herrialdearen populazio aktiboan eragin txikia zuen kontsumoak. Hala ere, enperadoreak opioaren merkatua etetea erabaki zuen. Eta britainiarrek aitzakiatzat hartu zuten hori Opioaren Gerrak (1839-1942 eta 1856-1860) pizteko.

Mendebaldean opioak barne-gatazka ugari sortu zuen handik aurrera. Morfina sortu zuten arazoa konpontzeko; drogaren bertuteak izango zituen, baina menpekotasunik eragin gabe. Substantzia aktiboa sintetizatzeak eta xiringaren erabilerak arazoa areagotu besterik ez zuen egin. Horrenbestez, 1895ean Bayer enpresak morfinarako erremedioa erregistratu eta ezturen kontrako xarabe moduan merkaturatu zuen. Heroina izena ipini zion. ■



CLARA AMIT. ISRAELGO ANTZINAROKO AGINTARITZA

250.000 urteko tresnak eta 100 urteko botilak

Ramla (Israel) inguruko aztarnategi batean, Erdi Paleolitoko (duela 250.000 urte inguruko) harrizko hainbat tresnarekin batera, ehunka kristalezko botila aurkitu dituzte. Botilok Europa mendebaldean dute jatorri, gehienak alkohollez beteta zeuden garai batean (ardoa, garagardoa, ginebra, whiskia...), eta, jakina, askoz berriagoak dira, duela men-

de batekoak, Lehen Mundu Gerrakoak. 1917ko azaroan, soldadu ingelesek, Edmund Allenby komandantea buru, Lod eta Ramla hiriak hartu zituzten eta, Jerusalem okupatzera abiatu baino lehen, inguru horietan egon ziren kanpatuta bederatzi hilabetez. "Tentsioa askatzeko" edan zituzten botila horiek guztiak, Ron Toueg indusketa buruaren arabera. ■

Izotza egurrean



Jakoba Errekondo

jakoba@bizibaratzea.eus

Egin du izotzak berea: azioa, txarkeria. Aspaldian ikusi gabeko izotz zuri galantak izan ditugu apirilaren bukaeran. Sator-lana baina agerian, inongo lotsarik gabe: azerikeria. Ikaragarria bota du Euskal Herriaren hegoaldean.

Izotz zuria haxe da: airean dagoen ura izotzu eta landareen eta lurraren gainean hedatzea. Berez ez da txarra, noiz gertatzen den eta landaredia zein egoeratan harrapatzen duen. Negu gordinan, landareak horretara —hau da, hotzera eta hotzagora— jarrita daudean gertatzen bada, kalte urriak eragingo ditu. Landareak negua igarotzeko prestatu egin dira, azalak zailduta, zorten eta adarrak izerdiz hustuta eta kimu berriak emango dituzten begiak ezkata sorta batekin babestuta. Hala dio mahatsondoak (*Vitis vinifera*): betor izotza eta garbitu ditzala koko, mamorro eta xomorro. Kalterik egin gabe, mesede galanta egiten baitu izotzak neguan. Beste sagardotegiko upela da aurten gertatu dena. Neguan hotz egin du, baina haren bukaera eta udaberria berotik eta lehorretik doaz. Segida honekin, landareak ziztu bizian mugitu dira, begi-kimuak azkar ireki puja berriak eman eta sasoiari ekiteko. Sasoiari indarrez ekin eta kimuetan loreak irekitzen dira, gero fruituetan burutuko diren loree-

tan. Izotzak begia ireki berri samarra harrapatu eta kimuaren puntta berria erretzen badu, gaitzerdi, baina, deskuidu batez, kimua aurrerratu antzera eta loreak irekita harrapatzen badu, jelateak kimu eta lore urteko itxaropen guztia erreko du. Halaxe gertatu da Arabako Errioxan. Hori gutxi balitz bezala, kaltea areagotzen duen eguzkia etorri zen: mahasti puntak izotzez estaliak zirelarik eguzki gordina indar betean azaldu. Horrek bat-bateko aldaketa ekarri zuen hotzetik berora, eta kaltea okertu. Zuhaitz eroria, ezpalkatua.

Orain loraldia ia erabat galduta, mahats gutxi izango da, eta mahatsondoak puja berriak botako ditu alde guztietara. Horrek lanak emango ditu, uztarik izango ez dela jakinda. Mahas-

tizainaren ahalegina, erredurak erredura, mahatsondoen etorkizun ahalik eta oparoena bideratzea da. Ardogilearena, aldiz, non edo han ahalik eta mahats onena aurkitzea.

Udaberri honekin, ziztu bizian doaz gora eta gora upategietan dauden lehen-go urteetako ardoen eta kalterik izan ez duten mahastietako balizko mahatsen prezioak. ■



ESTIBALITZ BESA



943 64 17 10

www.endanea.com

Jaitzubia 40, Hondarribia

Intsektu laguntzaileak

Zure landare eta barazkiak izurriteez salbu mantentzeko produktu ekologikoetan aukera zabala. Baita onuragarriak diren intsektuez zaintzeko materiala.



NEKAZARITZA KULTURA ESKOLETARA

Ikasleen begirada liburutik baratzerara altxatzen



Garazi Zabaleta
@tirikittrann

“Landaguneari bizkarra eman dion gizaratean bizi gara. Hiritartutako eremuan bizi da gehiengoa, landa eremutik eta nekazaritzatik urrun”. *Nekazaritza kultura eskoletara* egitasmoaren bultzatzaileek maiatzaren 11n Zizurkilan egindako agerraldiko komunikatuaren lehen hitzak dira. Gipuzkoako Landa Garapen Elkarteek (Landaola), Eusko Jaurlaritzako Ingurugelek eta Donostiako Cristina Enea Fundazioak elkarlanean sustatu dute proiektua, ikastetxeek landa-guneko arazoengatik inguruan hausnartzeko paper garrantzitsua betetzen dutelakoan.

Nekazaritza kultura eskoletara, nola?

Nekazaritzaren eta elikaduraren inguruan hausnartzea eta landa eremura begirada bideratzea dira proiektuaren helburuetako batzuk. Horretarako, 2016-2017 ikasturtean hazien inguruko bi jarduerak egin dituzte ikastetxeetako gaztetxoekin: *Hazi ezkutuen bila* ekimenean ikasleek beren inguruan (familia, bizilagunak, herrikideak, eta abar) zeuden haziak aurkitu behar zituzten, eta haien inguruko informazioa bildu, ereiten duten pertsonen laguntza baliatuta. Egitasmoan parte hartu duten hamar eskoletako ikasleek guztira 70 barietateko ehundik gora hazi lortu dituzte. Ez da makala!

Inguruko haziak eta hauen inguruko informazioa bildu dituzte ikasleek, baratzeetan beren hazien banku txikia sortzeko. Ikastetxeen artean hazien sarea sortzea da asmoa.



CRISTINA ENEA FUNDAZIOA

Hazien aterpea deituriko jardueran, berriz, baratzeetan beren banku txikiak sortzea da helburua. Beren baratzeetatik eta inguruko baratzezainengandik lortutako haziak gordetzen dituzte, urtez urte ikastetxeko hazi bilduma aberasteko. Aurrrera begira, ekimenen parte hartzen duten ikastetxeen artean hazien sarea sortzea da asmoa. Cristina Eneako Haziera hazien artxiboan gordeko dituzte bildutakoak. Jada bilduma osatzeko lanean ari dira Gipuzkoako hamar ikastetxe.

Kurtsoa bukatuta ere, ekimenak

Nekazaritza kultura eskoletara ekimenen parte hartutako ikastetxeek emaitzak besteekin elkarbanatu nahi dituzte. Horretarako, ikasturtean zehar egindako dinamiken bidez lortutako informazio eta haziak erakusketa eginen dute orain: *Hazien erakusketa ibiltaria*.

Parte hartu duten ikastetxe guztietatik pasatuko da erakusketa, ekintzaileek elkarren berri izan dezaten eta gainontzekoek egindako lana ezagutu dezaten. Maiatzetik ekainera eta irailetik urrira egingen dute aurkezpen bira. ■

BIO
TERRA
2017
14. EDIZIOA

Produktu ekologikoen, bioeraikuntzaren, energia berriztagarrien eta kontsumo arduratsuen azoka

2 · 3 · 4 Ekaina **FICOB**
IRUN

bioterra.ficoba.org

#Bioterra2017

EKO
ESPERIENTZIA
BIZI EZAZU!

P
dohainik

Ficobara, zator trenean!
(Irun-Ficoba geltokia)

euskotren

ANTOLATZAILEA

FICOB
Tel. 943 66 77 88
Fax. 943 61 61 64
www.ficoba.org
ficoba@ficoba.org

BABESLEAK

GRANGIPUZKOA

EUSKO JAURLARITZA
GIBELDIO VASCO

IRUN

GURE GAIAK DIRA GURE BALIOAK | PARTE HARTU ETA IRABAZI SARI HAUETAKO BAT



Aste honetako nabarmendua

JATORDUAK BILBOKO KAFE ANTZOKIAN

4

Kafe Antzokia, euskaldunon plaza eta bilgune

Denborak ez du etenik eta, ohartzerako, hogeita bat urte joan dira Kafe Antzokiak ateak estreinakoz zabaldu zituen geroztik. Euskaratik eta euskararako egitasmo berria zen orduan, eremu deseuskaldundu batean txertatu behar zena eta Bilbon euskarari eta euskal kulturari duintasuna ekarri nahi ziena. Zorionez, herritarrek emandako erantzunak berretsi ez ezik, gainditu ere egin zituen antolatzaileen asmoak eta Kafe Antzokiak urteotan bere eginkizun garrantzitsua izan du: euskaldun guztion bilgunea, euskal kulturaren plaza eta beste herri eta kulturen agertokia izatea. Kafe Antzokian era askotako giro, ekitaldi eta jarduera izan ohi dira, egunez zein gauez: liburu eta disko aurkezpenak, kontzertuak, ekitaldi pribatuak, ordu txikitako gau-giroa... baita bazkari gozoak ere, astelehenetik larunbatera, ARGIAko irakurle batzuek dastatu ahal izango dituztenak.



Eragile hau hobeto ezagutzeko:



BILBOKO KAFE ANTZOKIA

www.kafeantzokia.eus
944 244 625

#kultura
#plaza
#agertokia
#bilgunea

Maiatzeko sariak

1



Kimutx liburuak
4 ale

2



Perlata taldearen diskoa
4 KD

3



Mugarik Gabe GKE
Bizitza Jasangarrietarantz
3 sorta

4



Bilboko Kafe Antzokia
(Zenbat Gara elkartea)
2 pertsonentzako bina bazkari

Parte hartzeko: ☎ 943 371 545 | guinea@argia.eus | www.argia.eus/gunea

Eragilea bazara, zabalkunderako materiala baduzu eta zure lana ezagutarazi nahi izanez gero, jar zaitez gurekin harremanetan.



ARGIAren buletin berriaren estetika ez da ARGIAk hutsetik asmatutakoa. Euskal Herriko bezala nazioarteko hainbat hedabideren buletin ereduak aztertu dira norabidea zein den ikusi eta gureru egokitze.

ARGIAren buletin berria martxan da



Itsaso Zubiria Etxeberria
@itsasozubiria

Aitortu beharra dizut, irakurle, zorte izugarria dudala natura gertutik pixka bat gozatzeko aukera dudalako etxean. Eta oraintxe ari gara udaberriaz disfrutatzen. Zozoari begira-begira egoten gara nola jakirik gozoeak bildu eta ematen dizkion ahora zozokumeari. Eta espektakuluari begira nagoela klik egin dit buruak. Ez al zaizu iruditzen geroz eta murtxikatuago emanda jatea gustatzen zaigula guri ere?

Informazio ahalik eta azkarrena, inon begiratu beharrik gabe gure mugikor eta ordenagailuetara iritsiko dena, klik batean ireki eta dena ikusteko moduan... Tira, ez naiz irakurleari zozoa deitzen ari, konparazio bat besterik ez zait etorri burura, baina uste dut ez naizela lehena ondorio horretara iritsi dena. Beraz, puntu honetan egonda, ARGIAk ere eman nahi dio bere komunitateari informazio osoa, albiste garrantzitsuenak, euskaraz noski, eta ahalik eta eskueren. Nola? Dagoeneko martxan den buletin berrituarekin.

Eguneroko dosia da orain arte bezala, informatuta egoteko beharrezkoa dugun eguneko albisteen hautaketa eginda buletinaren harpidedun guztiei bidaltzen zaiena, eta sarean dagoen informazio olatu horretan guztian galdu daitezkeen eta ARGIArentzat garrantzitsuak diren albisteak biltzen dituen. Hori da azken batean helburua, baina zergatik aukeratuko du irakurle batek ARGIA horrenbeste komunikabideren artean? Zerk egin dezake erakargarri gure buletina besteen aldean? Lehendik datorren buletina du oinarri edukietan, baina aurrekoa jasotzen zutenek nabaritutako zuten alde diseinuan. Argazki indartsuak ditu, titular nabarmenak, guztia oso modu arin, argi eta grafikoan erakutsita. Hori da aldaketa nagusia.

Informazio oso bisuala lortu dugu, irudi edo titular batekin eguneko albisteak ezagutzeko modukoa.

www.argia.eus-eko azalean duzu buletinera harpidetzeko aukera, eta ARGIAko kide eginda ere jaso dezakezu eguneroko dosia. ■

ARGIAko kide egiterakoan eman dituzten arrazoiak

“Euskal Herriko aktualitatearen ikuspegi kritiko eta gurea, herri mugimenduekiko gertutasuna, euskararen presentzia, elkartasunari ematen zaion garrantzia... eta Joseviskyren azalak!”

Enaut,
ARGIAkoa

“Nere ama hizkuntza eta adierazpen askatasunaren defentsan”

Gorka,
ARGIAkoa

“ARGIAk azken urteetan zehar harturiko bidea oso positiboki baloratzen dut. Ezinbestekotzat jotzen dut komunikabide independenteak izatea. Horretarako herritarron eta irakurleon babesa eta ekarpena ezinbestekoa da”

Xabier,
ARGIAkoa

ARGIA IRRATIETAN

- **Euskal Irratiak:**
Astelehenetan, 8:00etan.
- **Euskalerria Irratia:**
Astearteetan, 16:15ean.
- **Xorroxin Irratia:**
Astearteetan, 18:00etan.
- **Info7 Irratia:**
Asteazkenetan, 16:15ean.
- **Bizkaia Irratia:**
Asteazkenetan, 11:30ean.
- **Bilbo Hiria Irratia:**
Ostegunetan, 10:30ean.

Gipuzkoako Herriartekoko finalistak

ZIRI-DEMARA KO PREST

Auzoa dira Gipuzkoako Herriartekoan finalera iritsi diren bi taldeak. Am...ona (Amasa-Villabona) eta Karidadeko Benta (Zizurkil-Asteasu). Amaia Agirreren ikasle izateak elkartu zituen txikitari, eta Harituz Tolosaldeko Bertsotale Taldeak lotzen ditu gaur. Beren bertsokerak otañotarren, Pello Errotaren edo Zabalarenetik gehiago du azken hamarkadetan Euskal Herrian nagusitutako joeratik baino. Entzuteko, maiatzaren 27an Azpeitian duzu aukera.



Estitxu Eizagirre Kerejeta

@eeizagirre

Villabonako Amasa kafetegian elkartu gara bi taldeetako bertsolariekin (Joseba Otaegi salbu, lan erreleboan baitzen). Euskal Herriko punta bateko eta besteko bertsolariak sartu-atera dabil-tza kafetegian, Bertsotale Elkartearen egoitza, Mintzola etxea, ondoan dagoen seinale. Elkarrizketa josiz erantzun dituzte galderak, eta tartean sartu dira, batzuetan kolpean eta bestetan zeharka, kideen ziriak. Hizlari trebeak dira eta bizitza arpajotzea dela sentitzen du batek hauen artean.

Herriartekoan 38 taldek hartu dute parte eta bertsotaleen artean sarea josteko balio izan duela kontatu digute. Ander Goikoetxea Arana da, bertsolarietan, horren adibide; bera da salbuespena, txikitatik Amaia Agirreren irakasle izan ez dena: “27 urterekin helduentzako bertsotale-eskola antolatu genuen Villabonan. Geroztik, tarteka, lagunartean eta aritzen ginen. Herriartekorako Amona taldeko antolatzaile aritzeko deitu zidatenean,

nik kantatu egingo nuela esan nien”. Oihana Iguaranek berehala: “Bagenekien bertsotarako deituta ez zenuela onartuko, eta antolatze deitu genizun, ondoren bertsotarako zirikatzeko asmoz”.

Herriko zaleenak gai-jartzen eta epaile lanetan lotu dira bertsolariekin eta saioetan eta prestaketetako bileretan “ederki gozatzen” ari dira. Beste herrikide batzuek, kalean pasatuta “bertsolari!” ezagutzen dituzte orain, sekula saioetan ikusi gabeak Herriartekoan entzule izan dituzte eta lehia nola doan interesaturik dira: “Zizurkildarrak oso zizurkildarrak dira, eta Asteasukoak zer esanik ez! Horrelako herrietan Herriartekoak tira egiten du, bai pelotan eta bai bertsotan” kontatu du irri-erdika Unai Mendizabalek. Jende asko mugitu du Zizurkil-Asteasuko Pello Errota taldeak.

Bi talde hauetako bertsolari gehienek probatu dute bestelako txapelketa, Gipuzkoakoa eta Euskal Herrikoa. Herriartekoa “beste zerbaite” dela kontatu dute,



“ikusteko gutxi” duena bakarkakoarekin. Batez ere, taldean eramaten delako ardua, emaitzaren erantzukizuna partekatua delako, gozoak eta gaziak taldean bizitzen direlako eta helburuak jartzeko hain estu hartu ez dutelako: “Alegiko saioan gertatu zitzaidan, ez nuen egun onik izan, baina ‘besteak ondo ari dira’, horrek lagundu zidan eusten”. “Hi, bada, espabilatu hadi, ze ez diagu beti bestek eutsiko, e!”. Agirrek gehitu du bertsolari bakoitzak zer ariketa egingo dituen aukeratu ahal izatea luxu handia dela bertsotan, “ongien egiten dakizunera jartzeko aukera ematen baitizu”. Baina bertsolari bakoitzak 6 bertso kantatzeak “luzitzeko tarte txikiegia eta huts egiteko tarte handiegia” dakarrela dio. Zentzu horretan, txapelketa arruntetan norberaren lanarekin gusturago geratzeko aukera egoten dela. “Herriartekoan agurra berezia izatea garrantzitsua izan da zentzu horretan, agurra prestatzen ederki pasatu baitugu, eta oholtzan kantatzea



Am...ona! (Villabona-Amasa) eta Karidadeko Benta (Asteasu-Zizurkil) taldeen lotura den zubian elkartu dira bi aldeak. Ezkerretik eskuinera: Beñat Iguaran, Ander Goikoetxea, Igotz Alkorta, Mikel Maiz, Haritz Mujika, Amaia Agirre eta Unai Mendizabal.

ARGAZKIA: ESTITXU EIZAGIRRE

ere gozarena izan da" gehitu du Oihana Iguaranek. Bi talde hauen agurrak entzule askoren memorian gelditu dira. "Gure artean prestatzeko bildu, eta bertsotan baino denbora gehiago eman izan dugu agurra prestatzen!" aitortu du Beñat Iguaranek. Bertsoa ez dela hitza soilik agerian geratu da ariketa horretan zer elementu prestatzen dituzten galdetuta: "Uste dut doinuarekin asmatzea dela gakoa. *Tractor amarillo* hartu genuen batean. Behin doinua aukeratu, hitzak azkar etortzen dira" bota du Mendizabalek. "Edo hurrengoan, bi ahotsekin jokoa egitea pentsatu genuen..." Mujikak.

Larunbateko finaleko agurra prestatzen ariko dira honezkero. Amasa-Villabonako Amona taldean lau bertsolari dira, eta hiruk kantatuko dute egun handian. Nortzuk? Azpeitira jo beharko dugu jakiteko, galdetuta erantzun hau jaso dugu-eta: "Aste honetan saioa egin beharko dugu gure artean eta gaizkien aritu dena etxera. Epaile, kontrarioak".

"EZ GARA POESIA ASKO EGITEKOAK"

Asteasun biltzen zen taldeari txikitatik antzematen zitzaion Amaia Agirreren eskola. Euren bertsokera definitzeko eskatu diegu: "Hitz egiteko modua ere badugu ezberdina, behar bada bizi garen inguruaren eraginez", Mendizabalek. "Ez gara gu poesia asko egitekoak", jarraitu du Mujikak: "Bertsoa saltzen badakigu, mantso kantatzen, egoten. Saiatzen gara hizketan bezala bertsotan egiten. Gure erara egiten, ez gara saiitzen milagroak egiten". "Entenditzeko moduko bertsoak egiten ditugu", Beñat Iguaranek. "Ahoz-kotasunaren ahalik antzekoena egiten

saiatzen naiz, euskalkiari ez ihes egiten", Mendizabalek.

Erreferenteak

Garai batekoen artean, Joxe Agirre nabarmendu dute. "Lasarteren bertsokerak liluratu ninduen, eta edukiz, Xalbadorrek", gehitu du Oihana Iguaranek. Jexux Mari Irazu, Unai Agirre eta Aitor Mendiluze aipatu dituzte oraingoan artean. "Onena Maialen!", gehitu du Mujikak, "baina hori ez dugu erreferente, egiten duena egiten saiatu ere ez gara egiten, urrutiegi dago", bereizi du Mendizabalek.



Karidadeko Benta

XENPELAR DOKUMENTAZIO ZENTROA

JOSEBA OTAEGI SAIZA

33 URTE. BIZITOKIA: ZIZURKIL.
EGUNEROKOA: MEKANIZATUKO
LANGILEA.

*"Sorpresa" gisan hasi
zena jo eta ke.
ia bihurtu zaigu
taldeko alkate.
Ze kantakera jantzi,
ze arrazoi kate,
oraindikan edonor
harritu dezake.*

(Haritz Mujikak jarritako bertsoa)

UNAI MENDIZABAL JAUREGI

25 URTE. BIZITOKIA: ZIZURKIL.
EGUNEROKOA: BERTSO IRAKASLEA.

*Irakaskuntzan eta
plazan aparrean
eta militantzian
ere indarrean.
Abaniko zabal bat
da jende aurrean
hamaika erregistro
ahots bakarrean.*

(Amaia Agirrek jarritako bertsoa)

HARITZ MUJIKALASA

21 URTE. BIZITOKIA: ASTEASU.
EGUNEROKOA: HAUR HEZKUNTZAKO
IKASLEA ETA BERTSO IRAKASLEA.

*Arrazoiak eskaini
ditzake lerruan
edo barreak bildu
bertso amarruan.
Nahiz eta aingeru bat
dirudin larruan
deabru bihurri bat
darama barruan*

(Unai Mendizabalek jarritako bertsoa)

*Goiko argazkian Karidadeko
Benta taldea. Ezkerretik
eskuinera: Igotz Alkorta
(gai-jartzailea), Joseba Otaegi,
Unai Mendizabal, Haritz
Mujika, Mikel Maiz (ordezkaria)
eta Jon Ormazabal (epailea).*

*Ondoko orrian Am..ona!
taldea. Ezkerretik eskuinera:
Iñaki Otaegi (gai-jartzailea),
Oihana Iguaran, Beñat Iguaran,
Aritz Garin (epailea), Ander
Goikoetxea eta Amaia Agirre.*

Bailaran ereindakoaren uzta

Irakaslea bere ikasle ohiez inguratuta ikusiko dugu Herriartekoaren finalean. Agirrek kontatu du taldea osatzea izan zela bere helburua: "Ni hasi nintzenean Tolosan eta Hernanin zeuden bertso eskolak. Tartean ez zegoen ezer. Hernanira eta Tolosara joaten nintzen, ederra izan zen bide hura baina neketsua ere bai. Horregatik egin nuen ahalegina duela 20 urte nire herri inguruan (Villabona) bertso eskolak sortzekoa. Inguruko udaletxeetara jo eta zain zeuden nork horrelako zerbaite eskainiko! Ordu erdiko bileran lotzen genituen egoitzak eta aurrekontuak. Bertso eskolak jarri genituen Asteasun, Villabonan eta Zizur-

kilen, oso erraz! Urte batean 13 bertso eskola ematera iritsi nintzen, nola heldu nola ume, pentsa! Horietako bakoitzean aurrera jarraitzen zutenak, Asteasuko taldera ekartzen nituen kotxean. Taldearen babesa da gakoa aurrera egiteko". Gaur egun egoera oso ezberdin ikusten du, Bertsozale Elkarteak hezkuntza arautuan zabaldu duen sarea asko estimatzen du, bertso eskolak badira, ondoren Tolosaldeko gazteak biltzen dituen Harituz Bertsozale Taldea...

"Bi lo eta bertso-eskola" asteazkena noiz iritsiko pasatzen omen zuten astea txikitik, denek xamurki gogoratu dutenez: "Lau orduko bertso eskolak egiten genituen, bertsoaz gain beste gauza

pila bat eman dizkigu eta horregatik lotu gintuen Amaiak bertsoetara" kontatu du Mujikak. Talde giroa elikatzeke, bertso eskolak eskolatik gutxi eta ongi bizitzetik gehiago izan zuela azaldu du Agirrek: "Gaztetxotatik eramaten nituen bertso afaritara, egunpasak egiten genituen elkarrekin...". Agirrerren ikasle izandakoak irakasle dira egun, eta Asteasuko taldea daraman Mujikak eskola horri jarraitzen dio: "Saioetara hamar minutu lehenago ez, pare bat ordu lehenago joaten gara, beste herrietako jendea ezagutu, litxarrerria batzuk jan...". Beren herrietan bertsolaritza bizi egiten dela eta urtean behingo saio nagusiak indartsuak direla estimatzen



XENPELAR DOKUMENTAZIO ZENTROA

Am...ona!

OIHANA**IGUARAN BARANDIARAN**

26 URTE. BIZITOKIA: AMASA.
EGUNEROKOA: BERTSOAREN AGENDA
DOKTORE-TESIA EGITEN ARI DA.

*Hanka puntetan dantzan
hasi zen haur hura
oinak puntutan dator
hazi zen mundura.
Sarea du oinarri
talde bat aingura
ta nahi duen puntura
Harituz heldu da.*

(Amaia Agirrek jarritako bertsoa)

BEÑAT**IGUARAN AMONDARAIN**

28 URTE. BIZITOKIA: AMASA.
EGUNEROKOA: MONTATZAILEA.

*Zirtoa dago bere
dohainen ilaran
baina askoz gehiago
da Beñat Iguaran
hitz neurtuen pizti hau
ehiztari nola dan
kartutxo bat prest dauka
beti rekamaran.*

(Oihana Iguaranek jarritako bertsoa)

ANDER**GOIKOETXEA ARANA**

33 URTE. BIZITOKIA: VILLABONA.
EGUNEROKOA: UNIBERTSITATEKO
ELEKTRONIKA IRAKASLEA.

*Buruz argia eta
zorrotza eztena
sorpresa bihurtu da
erokeri zena.
Orain arte dotore
egin arren dena
Azpeitin egingo du
saiorik onena.*

(Beñat Iguaranek jarritako bertsoa)

AMAIA**AGIRRE ARRASTOA**

39 URTE. BIZITOKIA: ASTEASU.
EGUNEROKOA: BERTSO IRAKASLEA.

*Bertso munduan ez da
ibili gordea
ofizio danetan
abila orde.
Sakonean sakona
fina umorea
gai-jartzen ona eta
bertsotan hobea.*

(Ander Goikoetxeak jarritako bertsoa)

dute. “Gauza handia da txikitan herri saio handi horretan buruz ikasitako bertsoak kantatzea. Horrela hasi ginen plazaratzen” kontatu du Mendizabalek. “Eta bertsoetan idoloak dituzun horien ondoan egotea! Futbolearen ari den umeari Xabi Prieto eskolara etortzea bezala”, jarraitu du Mujikak.

Gaztetxotan, Tolosaldean Harituz Bertsozale Taldea martxan jarri zuten, egun bailarako bertso eragile nagusietakoa bihurtu dena: “Bere garaian Hamaika Bertute ekimenak elkartzen gintuen bertsozaleak. Hura bukatu zen, eta bailarako herrietako bertsolariek eta zaleek beharra sentitzen genuen elkartze-ko, herrietan sakabanatuta baixeunden.

Elkarrekin biltzeko, eta herrietan saioak eta ekimenak antolatzeke” kontatu du Beñat Iguaranek. Ibiltaria egiten dute, astero herri batean bilduz. 15 bat bertsolarik parte hartzen dute Harituzen eta era askotako ekimenak antolatu dituzte, esaterako, bertso eskolak, urtero egiten duten bertso jarrien afaria... Hurrengo ikasturtean beste urrats bat eman nahi dute, Tolosaldeako ahalik herri gehienetan bertso eskolak jarritz: “Ni naiz taldean gazteena, eta hamalau bat urteko hutsunea ikusten dugu. Bertso eskolak sustatuta belaunaldi berriak ekarri nahi ditugu Harituzera” kontatu du Mujikak. “Herri txikietan ere lau bat umeko taldea osatzeko aukera ikusten

dugu, eta kozkortzen direnean bailarako dinamika ibiltarira batzekoa”. Herriarteak ekarri dien oihartzuna ere alde izan dezatela. Aisialdian ere “konpetentziak” pilatzeari garrantzia handia eman zaio beti, eta bertso eskolak jarraitzen du “umorea”, “hizkuntzaren plazera”, “elkarrekin gauzak antolatzea”, “lagunartea” estimatzen dutenentzat luxuzko esperientzia izaten. Gazte hauek bota digute aurreko belaunaldiak ere kontatzen duen sentipena: “Gure garaian bertso eskolara joaten ginenok arraroak ginen”. Denbora-pasaren artearekin gozatzen duen arraro horietakoa bazara, adi, hurrengo ikasturtean izan dezakezu aukera. ■

PAGO
kafe antzokia
OIARTZUN

LITERATURA ETA
MUSIKA EUSKARAZ

Lau
Gartzelak
**BERNARDO
ATXAGA**

Azken lana

2017
EKAINAK

4

19:00



PAGO
kafe antzokia

PAGOALDEA 7, 20180
OIARTZUN
www.pagoa.eus

ORDUTEGIA:
OSTIRALA ETA LARUNBATA
17:00 - 06:00



T. 619 421 153
kafeantzokia@pagoa.eus
@PagoaAretoa

A: 8€ OIARTZUN: Amazkar, Elorsoro, Pagoa Kafe Antzokia.
DONOSTIA: Donosti Rock.
T: 10€ ERRETERIA: Arkaitza Taberna.
ONLINE: Ticketmaster, Ticketea, Colectivia, Mauka, Oferplan, Kutxabank.

berria

ARGIA

antza
KOMUNIKAZIO GRAFIKOA



EUSKAL
GARAGARDOA
EUSKAL HERRI BERRIKO ARTISAU GARAGARDOA



Amerika Kapitaina nazi bihurtu da: komikizaleen errebolta Trumpen AEBetan

Nola ote dago kontua AEBetan, Amerika Kapitaina ere esplizituki faxista bihurtu bada komikiaren azken zenbakietan. 1940ko hamarkadan sortutako pertsonaia nazien aurkako ikonoetako bat izan zen II. Mundu Gerran. Orain, Marvel etxearen azken erabakiak sutan jarri ditu komikizaleak.



Gorka Bereziartua Mitxelena
@boligorria



Iazko uztaitetik bolanteari gogor eutsita gidatzen ari dira Marvel argitaletxea, ekaitza noiz pasako zain. Arrazoiak: iragarri zutela marraz eta izarrez jantzitako heroi amerikar erabatekoa, Amerika Kapitaina, Hydra taldeko kide dela; alegia, talde terrorista kriptonazi bateko partaide. Pertsonaiaren jarraitzaileek ezin izan dute jasan eta sare sozialetan haserrea adierazi dute, Marvelen kontrako boikota eskatzeraino.

Dena esaten hasita, badira ñabardurak: Hydra ez da zehazki talde nazi bat, nazi ohi batek sortu zuen arren –Wolf-gang von Strucker baroiak– eta zeregin horretan lagun izan zuen arren Red Skull, Amerika Kapitainaren antagonista nagusia, eta hau bai, nazi petoa. Beraz, tira, ez dago diferentzia handiegirik, ezta? Milaka zalek behintzat ez dute alderik ikusten eta haien haserrea puztu da aurtengo martxoan, Marvelek Hydraren tixertak bidali dituelako komiki-dendetara, saltzaileak animatuz haiek

janztera pertsonaiaren bando-aldaketa kontatzen duen *Secret Empire* seriea komertzialki sustatzeko. “Portaera antiseMITAK hedatzen ari dira munduan oraintxe. Egin nahi dudazkeneko gauza da ‘Hail Hydra’ dioen kamiseta bat nire langile judutar zernahiari jantzaraztea”, adierazi dio Utah-ko komiki saltzaile batek *The Guardian* egunkariari.

Argitaletxearen bertsioa bestelakoa da. Ziurtatu dute zaleen kexak entzuten ari direla eta eskatu dute itzarroteko, ikusteko istorio-lerro honen bukaera zein izango den eta orduan ateratzeko konklusioak. Amerika Kapitainaren *twist* naziaren arduradun nagusiak, Nick Spencer idazleak, zera txiokatu du: “Benetan badiogu ‘ez gaitazue eraman istorioetako gertakari txarretatik, bukaeran dena konpondu arren’, orduan istorioek ez dute biziraungo”. Argudio ona da, nork uka, eta auziari fikzioaren ikuspegitik helduz gero, badirudi Spencerrek arrazoiak daukala.

Baina, puntu honetara iritsita galde-tu daiteke ea istilu honen muinean fikzioaren mugei buruzko desadostasunak bakarrik ote dauden edo, kontrara, zerikusi handiagoa daukan AEBetako klima sozialarekin, zeinak azken hauteskundeetan Trump presidente bihurtu duen, eskuin muturra normalizatu eta “alt-right” izen komertzialarekin plazaratu diren neonazien presentzia areagotu. Nazi berri horiek Amerika Kapitaina erabiltzen dute orain supremazismo zuriaren alde eta, Marvelek erabilerak horiekin zerikusirik ez duela dioen arren, sinesgarritasun handirik gabe geratu da jakin denetik argitaletxearen jabe den enpresako zuzendari exekutiboak, Ike Perlmutterrek, Trumpen kanpaina finantzatu zuela milioi bat dolarrekin.

Hori ikusita, ulergarriagoa dirudi komikizaleek zentimo bat gehiago jarri nahi ez izatea halako super-bilauaren planak ordaintzeko. ■

KULTURKRITIKA

» LIBURUA

Memoriaren zirrikitueta aztarrika



Amaia Serrano Mariezkurrena



Begoñaren itzalpean

JOSE INAZIO
BASTERRETXE A POLO

Elkar, 2016

Nobela honek berezitasunik badu, hori da azaleratzen duela 36ko Gerrari buruzko euskal eleberrigintzan (eta euskaldunon memoria kolektiboetan) agertu ohi ez den imajinario bat. Izan ere, gure iruditeri literarioan gudarien eta jazarrien memoriak fikzionatu dira gehienbat eta, zentzu horretan, eleberrri honetako kontakizunak hainbat mito deseraikitzen ditu: euskaldunak ere frankisten bandoan aritu zirela (ez soilik erreketek bezala), eta frankisten harrobi itxuraz homogeneo eta sendoa ere izan bazirela talde ezberdinen arteko tentsioak (erreketek vs frankista; falangista vs frankista).

Narratzaile batek baino gehiagok osatzen du istorioa, eta ahots bilduma horrek Begoñako Basilikan gertatutako eraso eta haren ondorioak ertz eta denbora-geruza ezberdinetatik azaltzen dizkigu. Gertaera hori bilakatzen da frankisten barruko gatazken sinbolo, baina pertsonaia guztiengan dago Gerratik 80ko hamarkadara arteko borroken arrastoa.

Eleberrriaren hasiera indartsua da, ez soilik bi amoranteren arteko sexu-eszena bat irudikatzen delako, baizik eta istorioaren gako nagusia gordetzen duelako, intrigari ateak zabalduz. Egitura aldetik, informazioa dosi txikitan ematea da, hain zuzen, nobelaren alderdirik aipagarrienetakoa. Trukean, baina, badira istorioaren sinesgarritasuna kolokan jartzen duten zenbait gertaera; esate baterako, Kelenek bere esku duen informazio guztia Barandi ikerlariari hasieratik ez ematea edota pertsonaiaren baten justifikatu gabeko bat-bateko heriotza.

Kontakizuna bi ildo narratibok osatzen dute, eta horien arteko loturak askatuko ditu Alberto Barandiaran detektibeak bide horretan aurrera egiteko bigarren mailako pertsonaiak giltza izanik. Horrez gain, plano narratibo bakoitza genero literario baten arabera josia da: frankismo garaikoak eleberrri historikoaren ezaugarriak ditu, eta 80ko hamarkadako istorioak eleberrri beltz klasiakoaren zantzuak. Azken hori, baina, topikoz bete da, eta horrek apurtzen du bestearen freskotasuna. Tamalez, gurasoak nortzuk dituen jakin nahi duen Kelenek ez du bere identitate pertsonalean arakutzen; maitasunaren bideetan galtzen da.

Ez dago heroitasunik, ez eta dramatismo-rik ere, frankisten biktima bilakatzen diren falangisten kontakizunean; epikaz betetako narrazio ofizialetik urruntzen da, beraz. Alabaina, horrek ez die gogortasunik kentzen pasarte krudelei, eta frankisten bandoko heriotzen kontakizunak haien sufrimendura gerturatzeko ahalegin gisa uler daitezke. Tzvetan Todorovek berak esana da ezen, iragan traumatikoko gizarte baten baketze bidean, bereizten bainoago elkartzen gaituzten narrazioak sortzea ezinbestekoa dela. ■

Jose Inazio
Basterretxea Polo
idazlea
(Galdakao, 1959).



» **TELEGRAMA**

Post Pum fenomeno musikala ezagutzen? Ez? Ea, hartu aurreko asteko ARGIA eta ireki 44. orria. Bai? Egin duzu? Euskal panorama astintzen ari diren taldeok zuzenean ikusi nahi? **Zazkel** eta **Gorpuzkingz** taldeak Sopolako Plaza Beltzan maiatzaren 27an **STOP** Adi Galdakaoko **Kaiola festibala** antolatu dutenek dakarten menuari: Fred Frith, Akauzazte, Jokloozappa, Jupiter Jon eta Pak Yan Lau. Maiatzak 27. Torreabab kultur etxea **STOP Pello Irazu** artistaren *Panorama* erakusketa Bilboko Guggenheim museoan dago ikusgai martxotik. Ekainaren 25era arte ikus dezakezue euskal eskulturgile honen lana **STOP**

» **KONTZERTUA****XVIII. mendeko festa**

Montse Auzmendi

**Gasteizko Kontzertu Handien
XII. Zikloa**

HELSINKI BAROQUE ORCHESTRA

Zuzendaria: René Jacobs.**Bakarlaria:** Sophie Karthäuser (sopranoa).**Egitaraua:**

Joseph Martin Kraus,
Mozart eta Beethovenen obrak.
Gasteizko Principal Antzokia.
Maiatzaren 12a.

René Jacobs orkestra-zuzendari belgikarra
(Gante, 1946); Sophie Karthäuser soprano
belgikarra (Malmedy, 1974).



Amaitu da Gasteizko Kontzertu Handien XII. Zikloa, saio eder eta zertxobait intimista batekin. Helsinki Baroque Orchestra taldeak, hogeituroko ibilbidean, musika barrokoaren interpretazio interesgarriak eskaintzen ditu, landuak, non jatorrizko musika tresnen sonoritate bereziak protagonismo handia duen.

Aldi honetan, egitarau zinez erakargarria ekarri ziguten finlandiarrek. Talde honek badu helburu bat (beste batzuen artean): hain ezagunak ez diren barroko garaiko konpositoreen lanak ezagutaraztea. Joseph Martin Kraus (1756-1792) egile alemaniarra da, baina ia lan guztia Suedian egin zuen. Saio honetan konpositore honen *Dido and Aeneas* (*Dido eta Eneas*) suitearen pasarte batzuk disfrutatu genituen Helsinkikoekin. Musika gozoa eta aldi berean nerbioduna topatu genuen, freskoa. Deigarria izan zen tal-

dearen konpaktazioa eta malgutasuna. Delikadeziaz aritu ziren *Dans af Najader och Tritoner* zatian, soinu garden-gardena entzun genuen, eta taxuz hartu zuten *Stormen* izeneko azkeneko pasarte, jatorrizko instrumentuekin hain zaila den soinu-oreka lortuz.

Jarraian, Mozarten aria batzuk eskaini zituzten. Sophie Karthäuser soprano belgikarra benetako luxua izan zen. Bere ahots gardenaren oso egokia da Mozarten musikarako. Bestalde, nabaria da Karthäuser eta René Jacobs zuzendariaren arteko sinbiosia. Askotan egin dute lan elkarrekin, eta honek errazten du, noski, interpretazio naturala lortzea. *Basta, vincerai* aria, Dido eta Eneasen istorioan oinarritua, pasioduna eta musikalki orekatua entzun genuen. *Bella mia fiamma, addio*, berriz, boteretsua iritsi zitzaigun. Ederra. Hau bezain ederra entzun genuen bigarren zatian interpretatutako aria: Beethovenen *Ah perfido*. Biek dute tankera berdintsua. Izan ere, esaten da aria hau Mozartenaren moldaketa bat dela. Kuriosoa. Horrez gain, bi ariak Josepha Duschek sopranoarentzat idatzi zituzten.

Saioa amaitzeko, Beethovenen *1. Sinfonia do minorrekoa*, op. 21 interpreta-tu zuten. Konpositore alemaniarren sinfonien artean, klasikoenetako bat da, egituraz gutxienez. Baina berrikuntza nabarmenak aurkitzen ditugu honen barruan: modulazio ugari, mugimendu azkarrak... Beethovenen soinu-mundua hor zegoen jada. Freskotasunez zuzendu zuen Jacobsek. Biribila. ■



Hautsitakoa puskaka erakusteaz

DER TRAUMHAFTE WEG

Zuzendaria: Angela Schanelec.

Iraupena: 87 minutu.

Lekua: Tabakalera, Donostia.

Hurrengo emanaldia: ekainaren 9a.



Gorka Bereziartua Mitxelena

@boligorra



Tabakalera programatzen dituzten pelikulei beti jarri behar zaie arreta, areto komertzialetan nekez ikusi ahal izaten ditugun lanak eskaintzeaz gain, arriskatzeko joera izaten baitute, aukera emanaz lengoaia zinematografiko ezohikoak pantaila handian ikusteko. Joan den larunbatekoa ez zen salbuespena izan: Angela Schanelec zuzendari alemaniarren *Der traumhafte Weg* (Bide onirikoa) proiektatu zuten, egilearen azken lana, zeinean bi bikoteren hausturak kontatzen diren elkarren arteko 30 urteko tartearekin eta, itxuraz behintzat, bien arteko loturarik gabe.

Zentzumenak esna edukitzea eskatzen duen filma da, agerikoa baita plano bakoitza modu oso neurtuan hartuta dagoela, perfekzionismo; eta zuzendariak asmoa eduki duela irudietatik haragoko zerbait ebokatzeko. Alde horretatik, Schanelec-en hautuak gogora ekarri dit maiz Anton Txekhov idazleari egotzen zaion esaldi, izatez, apokrifoa: “Ez esan ilargiak distira egiten duenik; erakutsi-

dazu argiaren dirdaia kristal apurtuan”. Bestela esateko, galdetzen badiote istorioak “kontatu” ala “erakutsi” behar ote diren, Schanelec-ek bigarrena aukeratu du segur aski: lan honetako pertsonaiak ikusi egiten ditugu eta ikusten dugun horretatik atera behar dira ondorioak, beraien egoera emozionalaz askorik esaten ez duten dialogo eta antzeppen hieratiko samarren laguntza hutsarekin. Gehitu horri denborarekin egiten duen jolasa: 1980ko hamarkadan hasi eta gaur egun arte, lau aldi diferentetan banatuta dago filma, baina horretaz jabetzeko pista handirik ez zaigu ematen –Berlingo harresia erori aurreko telebistako albiste bat, telefono mugikorak edo liburuz hustu duten apalategi bat, besterik ez–.

Pelikula fragmentatu baten aurrean gaude, non eszena bakoitzak daukan berezko entitate bat eta kontatzeko dagoen istorioak bezainbeste inportatu duen film osoa biltzen duen tonuak. Egia da bi bikoteen arteko uztartzea ez zitzaidala aski ondo justifikatua iru-

ditu filma bukatu osteko momentuan. Gero lagunekin komentatu, pentsatzen hasi, ikusitakoaren bigarren eta hirugarren irakurketa posibleak egin, hasieran protagonistak Grezia gatazkatsu batean egotearen zentzua ulertzen saiatu, amaiera gaur egungo Berlinen kokatuta dagoela jabetu, eta nire buruari galdetu nion denak dimentsio politiko bat ote daukan. Zuzendariak ezetz erantzuten dit Google lagun aurkitu dudana elkarriketa batean. Baina bikote-hausturei buruzko pelikula honek funtziona dezake, prezio berean, proiektu europarraren alegoria gisa, kalean kantu alaiak abestuz bidaiatzeko dirua eskuratu nahi zuten gazteetatik, gaur egun kalean bizi den eskaleraino. Galdera ikurra erakutsi eta erantzuna ikuslearen esku uzten duen lana izanda, irakurketa posible bat besterik ez da, noski.

Bestelakoak egiteko aukera duzue, nahi izanez gero, ekainaren 9an euskarazko azpitituluekin Tabakalera bertan prestatu duten emanaldian. ■

Egilea: Ana Zambrano

Hitz gezidunak

SAKAN, HARAN
PERTSONAIAREN
IZENA

ATZEKO ALDERA
IRATZARRI,
ESNATU

SALDU
ADITZAREN
INFINITIBOA

LISTUA
EUSKAL
HERRIA

HEGAZTI
MOTA
AKTORE
GARRANTZI-
TSUENA

ETXEBIZITZA
PERTSONA,
GIZASEMEA

IZEKI
NAFARROAKO
HERRIA

LUTEZIOAREN
SINBOLOA
ZUBEROAKO
HERRIXKA

TENPERA-
TURA
EZAIN, ITSUSI

LABEAN
ERABILTZEN
DEN PALA

BIRIKERI,
PNEUMONIA
EZEZTAPEN

MAGNESIOA
EUSKALTEGI
SAREA

JAUSGAILUA
BAT ERROMA-
TAR ERARA

TELEBISTA
SOBERA,
GEHIEGI

EGOKIA
NAHIA,
DESIRA

GEHITZEKO
PARTIKULA
AHOLKU

EKIALDE
INGURU

NEHOLAZ

AURRIZKI:
KONTRAKO-
TASUNA
ASTRO BATEN
ESTALTZE

LORE
PARE BAT

MUSIKA NOTA
GIPUZKOAKO
UDALERRIA

EGITASMO
ESANEZ

MODUAK
ADIERAZI

MODU
ATZIZKIA
MUTILEN-
TZAKO
DEI-HITZA

JOAN DEN
URTEA

IODOA
HERRI
HIZKERAN,
ETA

... EMAN,
ZORIONDU
PERTSO-
NAIAREN
JAOTERRIA



Dani Blanco

Sudokua

Bete itzazu gelaxkak 1etik 9rako zenbakiak idatziz, zutabe, lerro eta 3x3ko koadro bakoitzean errepikatu gabe.

5		2					1	
		9						3
		6		2	7			
	5		3				7	
			4		9			
	4				2		6	
			9	1		6		
8						1		
	6					5		2

5x5

Zeharretara eta goitik behera, hitz bera.

1. Haga.

2. Martxan.

3. Azido nitrikoaren edozein gatz.

4. Iratzea.

5. Aldi jakin baterako janari kopurua (pluralean).

Ebazpenak

5x5:

5	7	2	8	9	3	4	1	6
1	8	9	6	5	4	7	2	3
4	3	6	1	2	7	8	5	9
2	5	8	3	6	1	9	7	4
6	1	3	4	7	9	2	8	5
9	4	7	5	8	2	3	6	1
8	7	2	4	9	6	1	5	3
3	6	1	7	4	8	5	9	2
2	5	8	3	6	1	9	7	4

5. Anoak.

3. Nitro. 4. Garoa.

1. Langa. 2. Abian.

Z	V	L	O	N	I	A	V	K	V	Z	I	G
V	A	X	A	R	A	P	E	X	T	E		
I	T	A	S	I	N	O	A	G	O	R	O	P
O	R	O	E	O	M		U	M	E			
K	E	R	A				T		H	E		
A	S	A	K				A	U	T			
N	A	L	P						A	L	A	S
O	D	I	B				Z	U	L			
I	I	I	L	U	T	U	R	V	A	Z	I	R
L	I	L	I				E	R	A	V	Z	A
O	G	O	N	E	B	O	A	L	A	I	B	I
Z	V	E		T	P		P		I			

Rosan Bosch. Ikasketa paisaien diseinatzailea



Ama kezkatua

"Arte Ederretatik nator eta hasita nengoan artea egunerokoan txertatzen, diseinua aldaketarako tresna gisa erabiltzen. Hala ere, nire semeen heziketa-gatik hasi nintzen honetan. Eskolan aspertuta zeuden, gogoak galtzen. Irakaslearekin mintzatu nintzen eta gaiditututa zegoen, 30 hurrekin, al-daketarik egin ezinik. Gauza txikiekin hasi nintzen hari laguntzen eta gerroztik aldaketa integralak diseinatzen aritu naiz".

Diseinua hezkuntza sistema aldarazteko tresna moduan darabil Rosan Bosch artista holandarrak (Utrecht, 1969). Montessori eskola batean hezi zuten, eta egun estudio arrakastatsua zuzentzen du. Danimarkan errotuta dago, baina mundu osoan gauzatu ditu proiektuak. Bere abiapuntua: ikasgela suntsitu, "ikasketa paisaia" bihurtzeko.

"Egungo ikasgela diziplina ezartzeko sistema da, ez ikastekoa"



Jabi Zabala

@sarean

ARGAZKIAK: ARITZ LOIOLA

Zeintzuk dira zure diseinuen helburuak, zer eragin nahi duzu haurrengan?

Motibazioa da helburu nagusia. Nekez ikasiko duzu zerbait, motibatuta egon ezik. Zure buruari erronka egitera bultzatzen zaitu motibazioak, jakin-minak eramaten zaitu, ikastera bultzatu... Haurrengan ikasgura bultzatzea da helburua, independente sentituz beren kabuz ikasi nahi izatea. Hezkuntza sisteman paradigma-aldaketa da hori: atazak agintzen dira hor ere, baina barruko motibazioa da indartsuena. Eskolen egungo diseinuak ez du ahalbidetzen aldaketa hori, kontrol sistema moduan planteatuta baitago.

Zertan egiten du huts egungo diseinu horrek?

Gauza askotan. Nagusiki, haur multzoa gela batean sartzen duzunean, aldi berean gauza bera egin dezaten, banakotasuna galtzen dute eta denok ez dugu era berean ikasten. Batzuek isiltasuna eta isolamendua behar dute kontzentratzeko, beste-zuek musika jarrita eduki edo mugitu beharra dute... Elkarri traba ez egiteko moduko ingurunea sortu behar duzu.

Eta ikasgelak ez du balio?

Hezkuntza proiektuak lantzen ditugu, eta ikasgela bera da arazoetako bat. Ikasgela txikia baino, gune askoz zabalagoak behar dira. Guk ez diegu ikasgela esaten, ikasketa paisaia baizik. Jolastea ikastea da. Adibidez, eskola batean sumendien paisaia egin genuen; barruan irakasleak denei berbaldia egiteko moduko gune zabala dago, baina baita bakartuago egon ahal izateko txokoak ere, ikasleek aukera dezakete nora joan hobeto ikasteko.

Horrek balio al du ikasleak adinean gora doazenean, curriculumari kasu egin eta azterketak gaiditzeko serioago ikasi behar dutenean?

Azterketei buruz ere luze hitz egin genezake, baina... Nork dio azterketak gaiditzeko erarik onena ikasleak irakasleari begira mahaietan banatuta ezartzea dela? Pentsamolde zaharra eta faltsua da, neurozientziak ezeztatua. MIT ikas-tegiak azterketa egin zuen, eskola magistraletan euren arreta neurtzeko, eta 20. minututik aurrera ikasleen garuneko aktibitatea izugarri jaisten da. Dizi-



"Nork dio azterketak gainditzeko erarik onena ikasleak irakasleari begira mahaietan banatuta ezartzea dela? Pentsamolde zaharra eta faltsua da, neurozientziak ezeztatua".

plina ezartzeko sistema da ikasgela hori, ez ikastekoa.

Baina adin guztietarako balio dute sumendi eta txirristek osatutako paisaiek?

Ez da adin kontua, kultura eta identitatearena baizik. Adibidez, nazioarteko eskola garesti batean izan nintzen lehengoan, luxuzko eraikina dute baina kezkatuta daude, ikasleek XXI. mendeko abilitadeak garatzeko arazoak dituztelako. Txirrista duten enpresak ere badi-ra, tristea litzateke hori lehen hezkuntzara mugatzea.

Arbelak eta mahaiak kanpora orduan?

Ez dira berez txarrak, jesartzeko eran eta norabidean dago gaitza. Arbela horman dagoen orrialde modukoa da, maiz irudiekin azaldu behar dira gauzak eta erabilgarria izan ohi da. Inportantea da ez egotea egun osoan hori, jarrera murriztuz horretan. Hala ere, mahaiak bakarrik kenduta ez duzu ezer konpontzen, portaera aldaketa behar dute eskolek, irakasleek eta ikasleek.

Gelaren aldaketa fisikoak aldaketa integralagoaren parte beharko du, hortaz. Zeintzuk dira aldaketa horiek?

Pedagogia eta eraketa aldaketak dira, eta azken horiek dira zailenak. Horregatik dira halakoak eskola gehienak, irakaslearen lanaldia antolatze moduaren ondorioz. Hainbeste ordu gela batean eskolak ematen... Gure planteamenduan, ordea, irakasle mentorea dute ikasleek, baina mugikortasuna dute. Taldeen artean mugitzen dira, egitura malguagoak dira. Berbaldi labur bat dago eta ondoren zure proiektua lantzen duzu, irakasleak lagunduko dizu. Paradigma aldaketa dago, ikasketak pasibotik aktibora. Aldaketa zaila da, nekeza, eta inbertsioa behar du.

Zein da irakaslearen rola eredu horretan?

Irakaslea *coach* modukoa da. Apurka-apurka erantzukizuna hartzen duzunean, zure *skateboard*-a eraiki nahi duzu eta laguntza emango dizu irakasleak, informazioa nola lortu, aholkatu, lagunduko dizuten ikaskideekin bildu... Eskolatik

irteteen ikasten jakitearen jarrera hori zurekin eramatea da helburua.

Gurasoek segurantzia nahi dute, emailtzak...

Egun lantzen ditugun proiektuak ez dira gobernuetatik sortuak, eskoletatik eta gurasoengandik baino. Beraiek dukesate haurren garapen holistiko baten beharrian hori. Ni ere ama naiz eta eskola hauek ez dituzte emailtzak akademiko kaskarragoak ematen, bai ordea haur zoriontsuagoak. Euskal Herrian, esan didate, ikasgelak edukitzera behartzen zaituzte curriculumak. Mundu perfektuan ez litzateke curriculum eta azterketarik egongo, baina mundu errealean, tamalez, badaude.

Ikasgelak ez eze, lantokiak ere birdiseintzen dituzue.

Ospitaleak, negozio guneak, erakusketak, museoak, enpresak... Dena lotuta dago eta enpresen kasuan, xehetasun batzuk ezberdinak dira baina ez horrenbeste. Adibidez, Lego enpresarekin ari gara lanean, langileen ikasketan interesa baitute, euren arteko komunikazioan, jolasean, identitatean... ■



Patxi López: "Sánchezen sobietarekin bat egin ala Portugaleten taberna bat ireki, hori da nire dilema"

Igandeko primarioetan meritu handiko brontzezko domina lortu ondoren, Patxi Lópezek bere etorkizun politikoari buruzko adierazpen esklusiboak egin dizkio Beranduegiri. PSOeren barne hauteskundeetako emaitzarekin pozik dagoela dio: "Oraindik norbait prest dago niri botoa emateko, ez dakit zer belar klase erretzen duten, batez ere Gipuzkoako eta Bizkaiko afiliatuak", esan digu barre artean. Bere etorkizun

politikoari dagokionez, oraindik erabaki ezinda dabil: "Pedro Sánchez oso konbentzitua ikusten dut Leninen liburu batzuk pasa zizkietenetik, baina ez dakit, nik nahiago Shakespeare azkenaldian, badakizue, izan ala ez izan, PP-rekin paktatu ala ez paktatu... ez dakit, ez dakit; agian Portugaleten taberna bat irekiko dut *Sarri, Sarri* nahi dudanean jartzeko, Madrilén gutxi entzuten da eta".

SAREAN ARRANTZATUA

Itxita dago zabalik ez dagoenean izanezik



Adi, Trapagaran FC! Zalegoen mehatxua



Martinez de Irujo talde armatua desegin egin da

Juan Martinez de Irujo Iberoko pilotaria erretiratu egin da. Agurrean, barkamena eskatu du azken urteetan Euskal Herriko frontisei emandako milaka zartakoengatik, eta jakinarazi du laster emango dituela erabilitako piloten geolokalizazioak. Nolanahi den ere, frontoietan agertu izan duen estilo kementsua defendatu du txapeldun handiak: "Nola nahi zenuten jokatzea, I-berokoa izanda? Ur-epelekoa izan banintz, akaso...". (Be-

randuegiko zuzendaritzak salaketa ipini du jada aurreko hitz joko negargarria asmatu duen erredaktore ohiaren aurka).

Bestalde, plastikozko aulki ekoizleen patronala atsekabetuta eta triste agertu da Irujok gehiago jokatu ez duela jakindakoan, elkarteko *chairman*-ak Beranduegiri adierazi dionez.

"Nahikoa da! ¡Basta Ya!", adierazi du Fernando Savaterrek Irujoren eskuak ikustean.





**INDARTU
DEZAGUN
INDARTZEN
GAITUENA**

Egin ARGIAkoa!

Eman eta jaso
nahi duzun neurrian

argia.eus/eginargiakoa

ATXEGA JAUREGIA

jatetxea

ATXEGA
JAUREGIA



Aitzezarra, 1

Zumartegi industrialdea

☎ 943 37 11 50

21070 **Usurbil** (Gipuzkoa)

www.atxegajauregia.com